

# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 5090

*AGINDUA, 2025eko azaroaren 14koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoekin sostengatutako ikastetxeetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum anitzeko programak.*

Hezkuntzari buruzko abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatutako Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 27. artikuluen arabera, curriculum anitzeko programen helburua izango da ikasteko zailtasun nabarmenak dituzten pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzea, baldin eta laguntza-neurriak jaso badituzte lehenengo edo bigarren mailan, edo aniztasunari erantzuteko neurri hori mesedegarri gertatzen bazaie titulua lortzeko.

Curriculum anitzeko programak araututa daude Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko ikasketak eta antolamendua ezartzen dituen martxoaren 29ko 217/2022 Errege Dekretuaren 24. artikuluan. Programa horiek ezartzeko, beharrezkoa da metodologia espezifiko bat aplikatzea. Horretarako, curriculum antolatu behar da curriculum orokorretik bestelakoak diren ezagutza-esparruetan, jarduera praktikoetan eta, hala badagokio, ikasgaietan, bete ahal izateko etapak berezkoak dituen helburuak eta irteera-profilean ezarritako konpetentziak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak adierazten du aniztasuna dela euskal eskola inklusiboaren jardunaren oinarria, eta, horrenbestez, kalitatezko hezkuntza eta aukera-berdintasuna bermatuko dituela, bidezkoa eta ekitatiboa izango dela, eta ikasle guztien eskola-arrakasta lortzeko xedea duen politika-, kultura- eta praktika-multzotz batean gauzatuko dela. Era berean, legeak zehazten du hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak erregelamendu bidez zehaztuko dituela ikasleen askotariko beharrei erantzuteko politikak eta estrategiak, inklusioaren, integraltasunaren eta ekitatearen printzipioetan oinarritutako hezkuntza-sistemaren esparruan.

Bestalde, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuak ere arautzen ditu curriculum dibertsifikatzeko programak, 25. artikuluan. Artikulu horretako 1. apartatuaren arabera, curriculum dibertsifikatzeko programak aniztasunari erantzuteko neurri bat dira, eta zuzenduta daude Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren mailatan eskolatuta egonik ikasteko zailtasun bereziak dituzten, ikasteko beste erritmo bat duten edo eskola-ingurunera egokitzen ez diren ikasleei (hor ez dira sartzen ikasteko ahalegin faltaren ondoriozko arazoak dituztenak). Programak dira ikasle horiei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen laguntzeko.

Azkenik, ekainaren 18ko 78/2024 Dekretuak, zeina baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzuteko, neurri eta laguntza osagarriak arautzen ditu 8. artikuluan. Hain zuzen, neurri horien artean sartzen dira curriculum-aniztasuneko programak, egiturazko izaerarekin.

Hori guztia ikusita, egokitzen da arauz garatzea Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuan ezarritzen dena, eta, agindu honen bidez arautzea Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum anitzeko programak.

Horregatik guztiagatik, hau

### XEDATZEN DUT:

#### 1. artikulua.– Xedea eta eremua.

1.– Agindu honek curriculum anitzeko programak arautzen ditu, bat etorritik Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoarekin.

2.– Agindu hau aplikatuko da funts publikoekin sostengatzen diren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza ematen duten ikastetxe guztietan.

#### 2. artikulua.– Curriculum anitza kontzeptua.

Agindu honen ondoreetarako, curriculum anitzeko programak aniztasunari erantzuteko neurri bat dira, eta zuzenduta daude Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren mailatan eskolatuta egonik ikasteko zailtasun bereziak dituzten, ikasteko beste erritmo bat duten edo eskola-ingurunera egokitzen ez diren ikasleei (hor ez dira sartzen ikasteko ahalegin faltaren ondoriozko arazoak dituztenak). Programa horien helburua da ikasle horiei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen laguntzea.

#### 3. artikulua.– Helburua.

Curriculum anitzeko programen xedea da premia duten ikasleei laguntzea bete ditzaten etapak berezko dituen helburuak eta irteera-profilean ezarritako konpetentziak, eta lor dezaten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua. Horretarako, metodologia espezifiko bat erabiltzen da; zehazki, curriculum antolatzen da curriculum orokorretik bestelakoak diren esparru eta diziplinarteko proiektuetan, eta tutoretza-ekintzak sustatzen dira, banaka nahiz taldeka, programan parte hartzen duten ikasleentzat.

#### 4. artikulua.– Hartzaileak eta programan sartzeko baldintzak.

1.– Irakasle-taldeek proposamenak egin ditzakete egoera jakin batean dauden ikasleak curriculum anitzeko programa batera sartzeko. Hauek dira egoera berezi horiek:

##### a) Programaren lehen mailara sartzeko profilak:

– Bigarren maila amaituta, hirugarren mailara igarotzeko moduan ez dauden ikasleak, baldin eta irakasle-taldeak uste badu maila berean beste urte batez egoteak ez diola mesederik egingo ikasle horien bilakaera akademikoari.

– Proposatuta ahal izango da ikasleak programaren lehen urtean sartzeko baldin eta hirugarren maila amaituta badute eta aurreko paragrafoan aipatutako egoeran badaude.

– Hezkuntza-sisteman berandu sartu diren eta programan sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten ikasleak.

##### b) Programaren bigarren mailara sartzeko profila:

Salbuespen gisa, proposa daiteke egoera hauetan dauden ikasleak programaren bigarren mailara sartzea:

– Laugarren mailaren amaieran Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko moduan ez dauden ikasleak, baldin eta irakasle-taldeak uste badu neurri horrek lagunduko

diela titulua eskuratzen; betiere, gainditu gabe Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuan zehaztutako iraupen-mugak.

– Hezkuntza-sisteman berandu sartu diren eta programan sartzeko baldintzen atalean zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak.

Salbuespenezko proposamen hori Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzari bidaliko zaio, onar dezan, IV. eranskinean jasotako ereduari jarraituz. Bertan, tratamenduaren amaierari dagokionez, soilik sartuko dira datu egokiak, beharrezkoak eta mugatuak, datuak minimizatzeko printzipioa betez. Hori onartzeko, ikastetxeak talde baimendua izan beharko du.

2.– Kasu guztietan, programa batean sartzeko, beharrezkoa izango da irakasle-taldeak proposamen akademikoa egitea, eta Orientazio Sailak egindako egokitasun-txosten bat aurkeztea. Txosten hori egiteko, entzun beharko da zer dioen ikasleak, eta guraso edo legezko tutoreen baimena eskuratu beharko da. Baimen hori argi eta espresuki jaso beharko da III. eranskinean.

#### 5. artikulua.– Iraupena.

Curriculum anitzeko programek, oro har, bi ikasturte irauten dute, hirugarren mailatik etapa amaitu arte. Salbuespen gisa, iraupena urtebetekoa izango da, betiere betetzen badira 4.1.b) artikuluan jasotako baldintzak.

#### 6. artikulua.– Egitura.

1.– Programa horiek sartuko dira ikastetxeko aniztasunari erantzuteko neurrien barruan, eta curriculum-antolamendu bat izan beharko dute, esparruen edo diziplinarteko proiektuen bidez garatzeko modukoa.

2.– Bi kasuetan, tutoretza-lana indartuko da hala programan parte hartzen duten ikasleen taldekoa nola banakakoa, eta programako tutoretza-planean jasoko da. Astean, bi tutoretza-ordu egingo dira: bat, programaren espezifikoak, eta bestea, talde arruntarekin batera egingo dena. Neurriak jarriko dira bi tutoreen artean koordinatuta lan egiteko. Horrez gain, banakako tutoretzak ere egingo dira, gutxienez hamabost egunez behin.

3.– Diziplinarteko proiektuen bidez antolatuz gero, programako ikasleek talde arruntetan izango dituzte hirugarren eta laugarren mailako ikasgai guztiak.

4.– Esparruen arabera antolatutako programa bat aukeratuz gero, ikasleek bi esparru espezifiko izango dituzte, eta hiru ikasgai, etaparako ezartzen direnak eta esparruetan jasotzen ez direnak (azken horiek, oro har, talde arruntetan egingo dituzte). Bi esparru espezifiko horiek honela osatuko dira:

– Hizkuntza- eta gizarte-esparrua: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza eta Geografia eta Historia ikasgaien oinarrizko alderdiak biltzen ditu.

– Esparru zientifiko-teknologikoa: Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika eta Teknologia eta Digitalizazioa ikasgaien oinarrizko alderdiak biltzen ditu.

5.– Curriculum-proposamena: agindu honetako I. eranskinean daude jasota hizkuntza- eta gizarte-esparruko eta esparru zientifiko-teknologikoko curriculumak; haiek egokitu egin daitezke, ikastetxeen autonomia pedagogikoaren arabera, eta kontuan hartuta zer ezaugarri dituzten ikasleek.

## 7. artikulua.– Ordutegiak.

1.– Programa hauetan parte hartzen duten ikasleen asteko ordutegia 30 irakastordukoa da.

2.– Esparruka antolatutako programetan, ikasleek gutxienez 23 ordu eskainiko dizkiete guztira hizkuntza- eta gizarte-esparruari eta esparru zientifiko-teknologikoari, eta, curriculum anitzeko taldean, beste ordu bat gehituko da taldeko tutoretza egiteko. Esparru horietakoak ez diren ikasgaiak talde arruntetan (gutxienez 3 ikasgai) edo talde espezifikoetan egingo dira, bat etorritik Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuan ezarritakoarekin.

## 8. artikulua.– Metodologia.

1.– Programek zehaztu beharko dute zer metodologia erabiliko den –izan esparruen arabera edo diziplinarteko proiektuen arabera–, nola antolatuko diren edukiak eta ikasgaiak, zer jardura praktikoa egingo diren ikasleak eskura ditzaten hala irteera-profilean ezarritako konpetentziak nola etapako helburuak, eta, ondorioz, ikasleek lortu ahal izan dezaten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.

2.– Metodologia espezifiko bat erabiliko da, eta curriculumeko edukiak landu eta azaltzeko, proiektu esanguratsu eta garrantzitsuetan banatuko dira; betiere, metodologia aktiboak erabiliz (ikaskuntza-proiektu, -erronka edo -egoeretan oinarritutako lana; norberaren ezagutza sustatzen duen ikaskuntza parte-hartzaile eta autogidatua; autonomia eta erantzukizuna pixkana bereganatzea; etab.).

3.– Ikaskuntzako Diseinu Unibertsalari jarraituko zaio ikaskuntza-egoerak diseinatzeko orduan, eta, norbanakoen desberdintasunak errespetatzeko, askotariko errepresentazioak, ekiteko eta adierazteko askotariko moduak eta inplikatzeko askotariko erak eskainiko dira.

4.– Erabilitako material didaktikoek balio beharko dute murrizteko zer eragin duten sexismoa erreproduzitzeko mekanismoek hezkuntzako esku-hartzean, Berdintasunerako Legearen 33. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## 9. artikulua.– Programaren elementuak.

1.– Orientazio Sailak egingo du ikastetxe bakoitzeko curriculum- anitzeko programa, ikasketaburuarekin koordinatuta, eta eraginpeko koordinazio didaktikoko sailarekin lankidetzan. Programa egiteko, oinarritzat hartuko dira Koordinazio Pedagogikoko Batzordeak ezarritako gidalerroak.

2.– Klaustroak oniritzia eman ondoren eta curriculum zehazte aldera, hartu beharreko erabakiak hartuko dira curriculum anitzeko programei buruz, eta Urteko Programa Orokorrean sartuko dira.

3.– Programak, gutxienez, honako elementu hauek jaso beharko ditu:

– Zer printzipio pedagogiko, metodologiko eta antolakuntzazkotan oinarritzen den programa, bermatzeko eskuratuko direla Oinarritzko Hezkuntzako irteera-profilean ezarritako konpetentzia espezifikoak.

– Zer ikasgai ikasiko dituzten programako ikasleek oinarritzko curriculumaren barruan eta talde arruntetan, eta zer ikasgai ikas dezaketen baldintza espezifikoetan.

– Zer irizpide eta prozedura erabiliko diren zehazteko zer ikasle sartuko diren programan.

– Zer irizpide erabiliko diren ikasleak taldetan biltzeko, eta espazioak, ordutegiak eta baliabide materialak antolatzeko.

– Zein diren programaren tutoretza-ekintza espezifikorako orientazioak, eta zer prozedura erabiliko den tutoretza-saio horien eta erreferentziazko taldearen tutoretza-saioen arteko koordinazioa bermatzeko.

– Zein diren esparruetako programazio didaktikoak, eta, beharrezkoa izanez gero, zein diren programarako berariaz diseinatutako hautazko ikasgaiak.

– Zer irizpide eta prozedura erabiliko diren programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

4.– Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio programa gainbegiratzea eta ebaluatzea.

5.– Laguntza-zerbitzuei dagokie programa garatzeko aholkularitza ematea.

10. artikulua.– Ikasleak programan sartzeko.

Prozesu honi jarraitu beharko zaio ikasleak curriculum anitzeko programa batean sartzeko:

1.– Bigarren hiruileko ebaluazio-saioan, irakasle-taldeak aztertuko du zer informazio ateratzen den etengabeko ebaluazio-prozesutik eta zer eraginkortasun duten aniztasunari erantzuteko aplikatutako neurriek, eta ezohiko bilera bat antolatuko du, ikasleei behin-behineko proposamen bat egiteko hurrengo ikasturtean programan sar daitezen. Erabaki hori adostasunez hartuko da, ikastetxeko orientatzailearen aholkularitzarekin.

2.– Kasu guztietan, programa horietan sartzeko, beharrezkoa izango da: irakasle-taldeak egindako proposamen akademikoa edukitzea eta ikasleen ebaluazio psikopedagogikoa egitea, ikastetxeko Orientazio Departamentuak neurriaren egokitasun-txostena egitea, ikasleari berari entzutea, eta haren gurasoen edo legezko tutoreen adostasuna lortzea (III. eranskina).

3.– Irakasle-taldea bildu ostean, ikasketaburuak ikastetxeko irakasle orientatzaileei helaraziko die proposamena, abian jar dadin ikasleak programan sartzeko prozedura. Prozesuari hasiera emateko, horren berri emango zaie ikasleei eta familiei. Horretarako, tutorea aurrez aurre bilduko da ikasleekin eta haien familiarekin edo legezko tutoreekin, eta idatziz jasoko da bertaratuek zer iritzi duten erabaki horren gainean, III. eranskinaren arabera.

4.– Irakasle orientatzaileak koordinatuko du nola ebaluazioa ea ikasleak programan sartuko diren ala ez. Zehazki, egokitasun-txosten bat egin beharko du II. eranskineko ereduari jarraituz, tutorearen laguntzarekin eta irakasle-taldearen parte-hartzearekin. Txosten horrek soilik bilduko du zer datu behar diren lortu nahi den helbururako, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1.c) artikuluan jasotako minimizazio-printzipioari jarraituz.

11. artikulua.– Tutoretza eta hezkuntza-orientazioa.

1.– Definitu egin beharko da zer tutoretza-lan egin beharko den programa honetako ikasleekin. Tutoretza-lan hori pertsonala, banakakoa eta jarraitua izango da, eta Orientazio Sailaren aholkularitza espezializatua izango du.

2.– Programako talde bakoitzak tutore bi ditu esleitura. Tutoreak esleitzeko, kontuan hartuko da zer irakaslek irakasten duten esparru horietan. Hezkuntza-prozesua jarraitua izan dadin, ahal dela pertsona bera izango da tutoretzaren arduradun, programak irauten dituen bi urteetan.

3.– Programak tutoretza indartuko du, hezkuntza-baliabide gisa ikaskuntza-zailtasunak konponzeko eta ikasleen hezkuntza-behar zehatz, pertsonal eta askotarikoei erantzuteko. Horrez gain, lankidetzaren sustatuko da familien eta hezkuntza-prozesuan esku hartzen duten gizarte-eragile guztien artean.

4.– Tutorearen zeregin nagusia izango da programako ikasleei hezkuntza-prozesuan laguntzea, hezkuntza-orientazioa ematea, ikasleek behar duten arreta ematea eta jarraipen pertsonalizatua egitea, maiz eta modu arinean komunikatzea ikasleen familiarekin, gurasoekin edo legezko ordezkariekin, programa ematen duten irakasleekin koordinatuta aritzea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen plangintza, garapena eta ebaluazioa egitean, eta ikasleen, irakasleen eta familien arteko bitartekari-lanak egitea.

5.– Taldeko tutoretza-jardueretan gauzatuko dira konpetentzia sozial eta emozionalak, trebetasun kognitiboak eta orientazio akademiko nahiz profesionala lantzeko programak. Ekintza horiei esker eta ikasleen banakako jarraipenari esker, hezkuntza-ingurune seguruak sortzea lortuko da.

6.– Tutoretza-zeregina irakaskuntza-prozesuaren berezko elementu gisa ulertu behar da; beraz, programan parte hartzen duten irakasle guztiek lagundu behar dute tutoretza-ekintzetan, eta komunikazio arina izan behar dute kasuan kasuko tutorearekin. Konpromiso hori eraginkorra izan dadin, programako talde bakoitzeko irakasle-taldea, gutxienez, hilean behin bilduko da, eta ebaluazio-saio bakoitzaren aurretik.

7.– Programan, astean bi tutoretza-ordu egingo dira: ordu bat tutoretza-lan espezifikoak egiteko, eta bestea, talde arruntarekin tutoretza-lanak egiteko. Gainera, hilabetearen behin, banakako tutoretza-lanak ere egin beharko dira. Programa hauetan eskolak ematen dituzten irakasle guztiek lagundu beharko dute ikasleen tutoretza-lanetan; horretarako, komunikazio arina eta egonkorra izan beharko dute kasuan kasuko tutorearekin.

8.– Irakasle tutorea maiz jarriko da harremanetan guraso edo legezko ordezkariekin. Gutxienez, banakako elkarrizketa bat bermatuko da hasieran, beste bat ikasturtearen zehar eta beste bat ikasturte amaieran. Hala ere, behar adina bilera eta elkarrizketa egin ahal izango dira.

9.– Tutoretza-jardueraren harira, ebaluazio-saio bakoitzaren ostean, tutoreak ikasleei eta haren familia edo legezko ordezkariari jakinaraziko die zein izan diren saio horretako emaitzak: zer aurre-pauso eman diren proposatutako banakako helburuetan. Horrez gain, jakinarazi beharko die zein den ikaslearen egoera eta ea ikasleak aukerarik duen etapako helburu nagusiak betetzeko.

10.– Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzeko, tutoretzak eta hezkuntza-orientazioak beti izan beharko dute kontuan ikuspegi inklusibo eta ekitatiboa, aukera-berdintasuna sustatzeko eta genero-estereotipoak ezabatzeko.

## 12. artikulua.– Ebaluazioa eta sustapena.

1.– Curriculum anitzeko programa bat egiten ari diren ikasleen ikasketa-prozesua ebaluatzeko, ebaluazio jarraitua, hezigarria eta integratzailea egin beharko da.

2.– Ebaluazioa egiteko erreferentzia nagusiak izango dira esparru eta ikasgai bakoitzeko konpetentzia espezifikoak, eta irteera-profilean ezarritako oinarritzko konpetentziak. Horrez gain, ezarri beharko da zein diren programako ebaluazio-irizpide espezifikoak.

3.– Ebaluazioa integratzailea izateak ez du eragotziko irakasleak ikasgai edo esparru bakoitzaren ebaluazio bereizia egitea, kontuan hartuta zein diren kasuan kasuko ebaluazio-irizpideak. Ebaluazio integratzailea izateak esan nahi du ezen, ikasgai edo esparru guzti-guztietan, kontuan

hartu beharko dela zer neurritan barneratu diren ikasgai edo esparru bakoitzeko konpetentzia espezifikokoak eta oinarrizko konpetentziak, egokitzeko Oinarrizko Hezkuntzako amaierarako eza-rritako irteera-profilea; bat etorri Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioekin.

4.– Hizkuntza- eta gizarte-esparruan eta esparru zientifiko-teknologikoan, ezingo dira bereizita kalifikatu esparru horietan sartzen diren ikasgaiak.

5.– Curriculum anitzeko programa batean sartzen diren ikasleek gainditu egin behar dituzte aurreko ikasturteetatik gainditu gabe dituzten ikasgaietako ebaluazioak, programako esparrue-  
tako batean sartzen ez direnak. Bestetik, esparruetako batean sartuta dauden ikasgaiak, aurreko ikasturteetan gainditu ez badira ere, berdin-berdin landuko dira eta gainditutzat joko dira ikasleak kasuan kasuko esparruan ebaluazio positiboa jasotzen duenean.

6.– Esparru edo ikasgai guztiak gainditu gabe promozionatzen diren ikasleek programako neurri unibertsalen laguntza izango dute; neurri horiek, berriz, programazio espezifikoan jasotzen dira. Hori guztia aintzat hartu beharko da ikaslea mailaz igotzeko edo ikasleari titulua emateko unean.

7.– Ikasturtean egindako jarraipena gorabehera, irakasle-taldeak –kasu bakoitzean, ikasleari eskolak ematen dizkieten irakasleek osatuak– ikaslearen azken ebaluazioa egingo du. Tutoreak koordinatuko du irakasle-taldea, eta Orientazio Sailaren laguntza izango du. Ebaluazio hori egi-  
teko, bilera bat egingo da ikasturtearen amaieran.

8.– Ikasleen ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko, irakasleek, oro har, ebaluazio-tresna ugari era-  
biliko dituzte, askotarikoak eta ikaskuntza-egoera desberdinetara egokitutakoak, ikasle guztien balorazio objektiboa egin ahal izateko. Programazioetan, finkatu beharko da zein diren tresna horiek, eta berrikusi egin beharko dira. Bestalde, irakasleek bermatuko dute ebaluazioarekin lotutako prozesuak egiteko baldintzak egokituta daudela hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen premietara.

Era berean, irakasleek ebaluatu beharko dute zer irakaskuntza-prozesu gauzatu diren eta nola jardun duten irakasleek eurek, prozesu eta jardun horiek hobetzeko eta mailaren berezko ezau-  
garrietara egokitzeko. Horretarako, programazio didaktikoetan, lorpen-adierazle egokiak ezarri beharko dituzte.

9.– Ebaluazio-saioetan, ikaslearen aurrerapena ez badator bat curriculum anitzeko programan ezarritako helburuekin, neurriak hartu beharko dira, aniztasunari erantzuteko egokitutak jotzen dire-  
nak, ikaslearen jarduketa-plan pertsonalizatuan jaso beharko da zer neurri ezarri diren.

10.– Curriculum anitzeko programetan, programako bigarren urtea amaitzean erabaki beharko da beti ea ikasleak beste urte batez bertan jarraitu behar duen programan.

11.– Curriculum-doikuntzak edo -egokitzenak dituzten ikasleen kasuan, ikasleok ebaluatzeko, kontuan hartuko da zer ebaluazio-irizpide ezarri diren doikuntzan edo egokitzen.

12.– Curriculum anitzeko programa amaitzean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gra-  
duatu-titulua lortzeko moduan ez dauden ikasleak aukera izan beharko dute beste urtebetez geratzeko programan, baldin eta irakasle-taldeak uste badu titulazioa lortu ahal izango dutela, edo uste badu neurri horrek lagundu egiten duela etaparako ezarritako helburuak eta konpetentzien garapen-maila lortzen.

13. artikulua.– Titulazioa.

1.– Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortuko dute baldin eta etapa-amaieran lortzen badituzte irteera-profilean ezarritako konpetentziak, eta etapako helburuak

bete badituzte; betiere, irakasle-taldeak hala irizten badio, eta hargatik eragotzi gabe Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuaren 38. artikuluan ezarritakoa.

Era berean, ikasleek titulua eskuratu ahal izango dute baldin eta, curriculum anitzeko programa bat gauzatu ostean, irakasleek uste badute etapako helburuak bete dituztela, eta lortu beharreko konpetentzien garapen-maila lortu dutela, nahiz eta ez gaingitu esparru edo ikasgai guztiak. Hori guztia, bat etorri Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Aginduekin, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio.

2.– Erabakitzeke ea titulua eman behar den ala ez, kontuan izan beharko da zer ezartzen den Dekretuan eta zer aipatutako aginduaren 33. artikuluan.

14. artikulua.– Programaren ebaluazioa eta jarraipena.

1.– Jarraipen eta ebaluazio espezifikoak egingo zaio curriculum anitzeko programari.

2.– Plataforma digital espezifikoaren bidez, aniztasun- eta inklusio-eskumenak dituen zuzendaritzak ikastetxe guztiei dokumentazioa eskatuko die (dibertsifikazio-programa, ikasle-zerrenda eta urteko memoria) curriculum anitzeko programa guzti-guztien jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

3.– Hezkuntza Ikuskaritzak gainbegiratu du nola aplikatzen den curriculum anitzeko programa, egiaztatzeke ea egokitzen den agindu honetan ezarritakora eta indarrean dauden gainerako xedapenetan ezarritakora.

15. artikulua.– Curriculum anitzeko programen plangintza.

1.– Aniztasun- eta inklusio-arloan eskumena duen zuzendaritzak urtero proposatuko du zer talde sartuko diren ikastetxe bakoitzean curriculum anitzeko programetan. Baliabide hori zehazteko, kontuan hartuko da zein den ikastetxearen Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI), zer eskaintza dagoen eremu horretan curriculum anitzeko programak gauzatzeko, zenbat ikasle dauden egun programan, eta zer ezartzen duten irizpideek gehienez ere egon daitekeen ikasle-kopuruari buruz.

2.– Oro har, programa horietarako proposatzen den ikasle-kopurua ezingo da izan DBHko 3. eta 4. mailetan matrikulatutako ikasle guztien % 15 baino handiagoa, eta gehienez ere, bi talde baimenduko dira, salbu DBHko 3. eta 4. mailetan 300 ikasle baino gehiago matrikulatuta dituzten ikastetxeetan.

3.– Programa horretan parte hartzeko hautagaiak dituzten baina programa gauzatzeko baimenik ez duten ikastetxeen kasuan, inguruko beste ikastetxe batzuetara jo beharko dute, zeinetan programa gauzatzen baita, eta eskatu beharko dute hautagaiak onar ditzatela. Era berean, baimena duten ikastetxeek plaza batzuk gorde behar dituzte inguruko beste ikastetxeetatik bideratutako ikasleak hartzeko. Plaza horien kopurua proportzionala izango da ikastetxeak DBHko 3. eta 4. mailan matrikulatuta dituen ikasleen kopuruarekiko. Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzak urtero zehaztuko du zein den proportzio hori.

4.– Funtz publikoekin finantzatutako ikastetxe guztietan aplikatuko dira irizpide horiek.

16. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Baimendutako ikastetxeek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

– Zer ikasle-zerrenda proposatzen duten.

– Zer programa osatu duten 9. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Dokumentuak aurkezteko, gehienez ere, hilabeteko epea egongo da, jakinarazpena egiten denetik aurrera. Eskaera eta dokumentazioa elektronikoki aurkeztu beharko dira nahitaez, Hezkuntza Sailak horretarako prestatuko duen aplikazioaren bidez.

2.– Aurkeztutako dokumentazioaren tratamendua:

Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzak aztertuko du zer dokumentazio aurkezten den, eta egiaztatuko du ea proposatutako ikasleak egokiak diren, eta zer ezaugarri duten ikastetxe eskatzaileek.

Zuzendaritza horrek txostenak edo laguntza eskatu ahal izango die hezkuntza-gaietan aditu diren aholkulariei, aurkeztutako eskaerak behar bezala ebaluatu eta aztertu ahal izateko.

Gainera, urriaren 1a baino lehen, ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzara bidali beharko dute zein den proiektuaren hartzailerik izango diren ikasleen behin betiko zerrenda; horretarako, plataforma digitala erabili beharko dute.

Ikasturte-hasieran, Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatuko du ea bat datozen curriculum anitzeko programetarako proposatutako ikasle-zerrendak eta programa horietan benetan eskolatutako ikasleen zerrendak, ebazpen honetan ezarritako baldintzen arabera.

Azkenik, ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarri beharko dituzte hala zein diren curriculum anitzeko programetan parte hartzen duten ikasleen orientazio-aholkuak nola familien edo legezko ordezkarien baimenak eta jarduketaren plan pertsonalizatuak.

**XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA.**– Berezitasunak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum anitzeko programetako edozein berezitasun, baldin eta ez bada jaso agindu honetan, elkarrekin ebatziko dute Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzak eta Hezkuntza Ikuskaritzak.

**XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.**– Arauak indargabetzea.

Curriculum anitzeko programak erabat ezartzen direnean, indarririk gabe geratuko dira arau hauek:

Agindua, 1997ko uztailaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum anitzeko programak arautzen dituenak.

Eta agindu honetan araututakoaren aurkakoak diren maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.**– Baimena.

Baimena ematen zaie Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzari, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari xedapenak emateko, Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzako arloan bakoitzak dituen eskumenen barruan eman beharrekoak, agindu hau behar bezala aplikatu eta gara dadin.

2025eko azaroaren 28a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.— Indarrean jartzea.

Agindu hau indarrean jarriko da EHAAr argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 14a.

Hezkuntzako sailburua,  
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

## I. ERANSKINA

## CURRICULUMAREN DIBERTSIFIKAZIOA: ESPARRUEN ARABERAKO CURRICULUM-PROPOSAMENA

1.– Esparru zientifiko-teknologikoa.

1.1.– Konpetentzia espezifikoak.

1.2.– Ebaluazio-irizpideak.

1.3.– Oinarrizko jakintzak.

A) Trebetasun zientifiko-teknologikoak.

B) Zenbakizko zentzua.

C) Neurriaren zentzua.

D) Zentzu espaziala.

E) Zentzu aljebraikoa.

F) Pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika, eta ikaskuntza-ingurune pertsonalaren digitalizazioa.

G) Zentzu estokastikoa.

H) Materia eta haren aldaketak.

I) Interakzioak eta energia.

J) Giza gorputza eta Osasuna.

K) Lurra sistema gisa eta garapen jasangarria.

L) Zentzu sozio afektiboa.

2.– Hizkuntza- eta gizarte-esparrua.

2.1.– Konpetentzia espezifikoak.

2.2.– Ebaluazio-irizpideak.

2.3.– Oinarrizko jakintzak.

A) Informazio-alfabetatzea.

B) Egungo munduko erronkak.

C) Gizarteak eta lurraldeak.

D) Hizkuntzak eta hiztunak.

E) Komunikazioa.

F) Irakurtzeko ohitura eta hezkuntza literarioa.

G) Atzerriko hizkuntzan komunikatzea, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna.

H) Lanaren antolamendua eta ikaskuntzari buruzko hausnarketa.

## CURRICULUMAREN DIBERTSIFIKAZIOA: ESPARRUEN ARABERAKO CURRICULUM-PROPOSAMENA

Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierarako izan behar duten irteera-profilean ezarritako oinarritzko konpetentzietan zehaztuta dago ikasleek zer ezagutza, trebetasun eta jarrera behar dituzten bai arlo pertsonal, akademiko eta sozialean beren burua errealizatzeko eta garatzeko, bai beren enplegagarritasuna eta ongizate orokorra hobetzeko eta bizi-estilo arduratsua, jasangarria eta osasungarria izateko.

Oinarritzko Hezkuntzako curriculumean ezarritako irteera-profilak erreferentzia izan behar du ikasle guzti-guztientzat; beraz, beharrezkoa da irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesu desberdinak aplikatzea, ikasle guztiei laguntzeko konpetentzia horiek eskuratzen eta bermatzeko lortuko dituztela. Curriculum anitzeko programak dira aniztasuna aintzat hartzeko programak, eta haien xedea da erraztasunak ematea ikasleei baldin eta ikasteko zailtasunak badituzte edo beste erritmo bat badute ikasteko nahiz eskola-ingurunera egokitzeko, etaparen berezko helburuak bete ditzaten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskura dezaten.

Curriculum anitzeko programen bidez, ikaskuntza pertsonalatuagoa eta banakakoagoa eskaintzen da, konpetentzietan oinarrituta eta kontuan hartuta zein diren norbanakoen desberdintasunei erreparatzen dieten printzipio psikopedagogikoak. Horretarako, beharrezkoa da curriculum orokorrak besteko curriculum-antolaketa bat ezartzea, hala esparruen bidez nola diziplinarteko proiektuen bidez.

Jarraian, bi esparru espezifiko hauen curriculumak aztertuko ditugu:

a) Esparru zientifiko-teknologikoa: Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika eta Teknologia eta Digitalizazioa ikasgaien oinarritzko alderdiak biltzen ditu. Esparru horrek modu integratuan lantzen ditu ikasleari pertsonalki eta profesionalki garatzeko aukera emango dioten ezagutza zientifikoak. Haiei esker, halaber, ikasleak gaitasuna izango du parte hartzeko zientziarekin lotutako kontuetan, ondo arrazoitutako erabakiak hartzeko eta ondo moldatzeko etengabeko garapen zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta soziala izaten ari den mundu batean, gizarte demokratikoan herritar konprometitu gisa integratzeko helburuarekin.

b) Hizkuntza- eta gizarte-esparrua: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza eta Geografia eta Historia ikasgaien oinarritzko alderdiak biltzen ditu. Esparru horrek modu integratuan lantzen ditu komunikazioaren, kulturartekotasunaren, herritarren eta gizalegearen arloko dimentsioak, herritar aktiboak, independenteak eta egungo errealitatearekin konprometituak garatzeko.

Curriculum honetako konpetentziak eskuratzeko, beharrezkoa da metodologia aktiboak, askotarikoak eta malguak erabiltzea, eta curriculumeko edukiak diziplinarteko gisa lantzea testuinguru esanguratsuetan, hala ingurune errealean nola birtualean. Horrek ikasleei aukera ematen die beren ikaskuntzaren eragile aktibo bihurtzeko, eta sustatzen du ikasleek nork bere burua ezagutzea, lankidetzan aritzea eta pixkanaka eskuratzeko autonomia eta erantzukizuna, ikasleak jarrera kritiko eta arduratsua hartzea informazio-iturrien erabilerari buruz, eta animatzea besteenganako errespetuzko jarduerak izatera.

Erabilitako baliabide eta materialak, ikasgelaren antolakuntza eta denboraren kudeaketa prestatuta egongo dira ikasgelaren aniztasuna eta ikasleen ikasketa-erritmo desberdinak errespetatzeko, ikasle guzti-guztiek ahalik eta konpetentzia gehien eskura ditzaten arlo pertsonalean, akademikoan eta sozialean.

Abiapuntu gisa, ikaskuntza ulertu behar da prozesu dinamiko, jarraitu eta malgu gisa, ikaslearen egoera eta beharretara egokitu, zeinetan espero baita ikasleek oinarritzko jakintzak erabil ditzatela konpetentziak eskuratzen laguntzen duten ikaskuntza-egoeretan. Horretarako, benetako eta gertuko ikaskuntza-testuinguruak landuko dituzte; zehazki, helburu argi batetik abiatuta, eta, zenbait hausnarketa- eta lankidetzak-prozesuren bidez, erantzuna emango diete zenbait erronkari, horretarako dituzten jakintzak, baliabideak eta trebetasunak erabiliz.

Ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa izango da prestakuntzara bideratua, jarraitua eta orientatzailea, eta baliagarria izango da neurtzeko zenbateraino bete diren ezarritako helburuak eta konpetentzia espezifikoak. Horretarako, sustatu behar da ebaluazio-tresna askotariko, irisgarri eta egokituaren erabilera orokortua. Sustatu beharko da balorazioa objektiboa izatea; aldi berean, bermatu beharko da ebaluazioari lotutako prozesuak gauzatzeko baldintzak bat etortzea ikasle bakoitzaren egoerarekin eta premiekin.

### **1.– Esparru zientifiko-teknologikoa.**

Esparru zientifiko-teknologikoa ikasleei aukera ematen die zientzietara modu integralean gerturatzeko; izan ere, zientziaren eta teknologiaren gaineko oinarritzko ikaskuntzak osotasun koherente gisa aurkezten ditu, non zientziaren adar bakoitzak eta haren metodologiek alfabetatze zientifiko-teknologiko bat eskainiko dieten, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan oinarritzkoak diren konpetentziak eskuratzeko behar diren tresnen bidez. Esparru zientifiko-teknologikoko ikaskuntzan zehar egindako lanak ikasleari lagundu behar dio herritar aktiboa eta arduratsua izateko behar diren oinarriak eskuratzen, etengabeko aldaketa teknologikoa eta sozialak dituen mundu batean, zeinak ingurumen-erronka handiak baititu.

Esparru zientifiko-teknologikoko curriculumaren ardatza da espazio bat, ahalmena ematen duena STEM esparruko arlo espezifikoetako konpetentziak garatzeko, lan eginez konpontzeko problema motibatzaileak eta ikasleen errealitatetik gertu daudenak. Gainera, esparru honetako edukien ikuspegi praktikoa eta instrumentalari esker, ikasleek ezagutza kultural, zientifiko eta teknologikoa eskuratu dituzte, eguneroko bizitzako egoerei modu kritikoan erantzun ahal izateko, eta behar bezala prestatuta. Zehazki, diziplinarteko proiektu kooperatiboen bidez lan egingo dute, eta jarrera kritikoak, jakin-mina eta sormena sustatuko dira. Benetako arazoak landuko dira, ikasleen errealitatetik gertu daudenak, gizarteari balioa ematen diotenak eta teknologiaren erabilera arduratsua sustatzen dutenak. Horrez gain, gizarte- eta ingurumen-gaiak aztertuko dituzte, hau da, zer eragin duen teknologiak gizartean eta osasunean, bat etorri 2030 GJHein.

Konpetentzia espezifikoak zehazteko, erreferentziazat hartzen dira oinarritzko konpetentzien deskribatzaile operatiboak. Esparru zientifiko-teknologikoaren kasuan, konpetentzia espezifiko horiek lotura zuzena dute esparrua osatzen duten ikasgaietakoekin; izan ere, zientzien eta teknologien ikaskuntzak integratzailea eta diziplinartekoa izan behar du. Konpetentzia espezifikoetako lehenengoak lotura dauka informazioaren tratamendurekin; bigarrenak erreferentzia egiten dio problemaren ebazpenari; hirugarrenak arreta ematen dio garapenari eta osasunean eta natura-ingurunean duen eraginari; laugarrenak ingeniarietako diseinua eta pentsamendu konputazionala lantzen ditu; bosgarrenak erreferentzia egiten dio taldeko ikerketa-proiektuen garapenaren bidezko materialen sorkuntzari; seigarrenak modu esanguratsuan laguntzen dio zientzien eta teknologien arteko interrelazioari eta eguneroko bizitzarekin duten harremanari; eta, azkenik, zazpigarren eta zortzigarren konpetentzien helburua da ikasleen trebetasun pertsonal eta sozialak lantzea.

Ikasleen konpetentzien ebaluazioaren oinarria da konpetentzia espezifikoak eskuratzeko. Konpetentzia espezifiko bakoitzaren garapena zehazteko, baloratuko da zenbateraino lortu diren kasuan kasuko konpetentziarekin lotuta dauden ebaluazio-irizpideak; beraz, irizpide horiek diagnostiko-tresna gisa ulertu behar dira, konpetentzia espezifikoaren garapenarekin lotuta. Horretarako, eta esparru zientifiko-teknologikoko ikaskuntzak testuinguruan jarritako ikaskuntza-egoeren bidez garatu izan direnez (izan egoera errealak edo simulatuak), orain, ebaluazio-irizpideak egiaztatze, praktikan jarri beharko dira ikasleen benetako testuinguruan jarritako teknikak eta prozedurak.

Oinarritzko jakintzak zehazteko, aintzat hartu dira esparruko lau ikasgaietako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak. Antolaketa horri esker, irakasleek edukiak modu funtzionalean landu ahal izango dituzte, haien arteko konexioak identifikatzeko behar den malgutasunarekin, eta, bestetik, blokeen arabera banaketa eta antolaketa horrek ez du tenporizazio espezifikorik ezartzen ikasgelan lantzeko.

### 1.1.– Konpetentzia espezifikokoak.

1.1.1.– Eguneroko bizitzako egoerekin lotutako informazioa eta datu zientifikoak –hala formatu analogikoan nola digitalean– bilatzea, hautatzea, aztertzea eta interpretatzea; aztertzea ea egiazkoak diren; eta modu kritikoan ebaluatzea. Hori guztia, fenomeno naturalak ulertzeko eta ezagutza zientifikoak eskuratzeko.

Bizitza errealean gertatzen den bezalaxe, esparru zientifiko-teknologikoak aukera ematen du diziplinarteko ikuspegi batetik lan egiteko gure inguruan gertatzen diren gertakari eta fenomenoak interpretatzeko garaian. Teknologiaren arloan egin diren aurrerapenei esker, gaitasun handiagoa dugu datuak eskuratzeko; beraz, oso garrantzitsua da informazio hori guztia aukeratzeko, interpretatzeko eta aztertzen jakitea. Gainera, informazio zientifikoa askotariko formatuetan egon ohi da: enuntziatuak, grafikoak, taulak, ereduak, diagramak, etab. Zientzian lan egiteko, Beharrezkoa da haiek guztiak ondo ulertzea. Hala, ikasleek trebetasunak garatuko dituzte ondo ulertzeko eta transmititzeko benetako informazioa, modu kritikoan eta oinarritzat hartuta arrazoibide zientifikoak.

Konpetentzia espezifikoko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK2, HKK3, STEM2, STEM4, KD1, KPSII4, KAKK3.

1.1.2.– Zientziako eta eguneroko bizitzako problemak interpretatzea, modelizatzea eta ebaztea. Horretarako, ikerketak eta proiektuak gauzatuko dituzte, metodo zientifikoa aplikatuko dute, eta arrazoibide matematikoak erabiliko dituzte zientziarekin zerikusia duten eguneroko gertakariak interpretatzeko, eta balioa emateko zientziak gizarteari egiten dion ekarpenari.

Metodo zientifikoa eta zientzietako legeak eta teoriak, ikerketari eta proiektuen bidezko lanari aplikatzen zaizkienak, funtsezko oinarria dira bermatzeko eskuratutako emaitzak zorrotzak izango direla. Kasu askotan, lan horietan arrazoibide matematikoak erabiltzen dira ebazteko zientziako problemek berezkoak dituzten kontuak. Zientziari garrantzia ematen dio eguneroko bizitzako gertakari errazak esparru zientifikoaren barruan azaldu ahal izateak zientziak berak ezarritako prozedura zehatzen bidez (adibidez, modelizazioa), , eta horrek zientzia ikasteko interesa pizten du.

Konpetentzia espezifikoko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK2, STEM1, STEM2, KD1, KD2, KPSII4, EK1.

1.1.3.– Aztertzea zer eragin duten eguneroko ekintza jakin batzuek gizartean eta natura-ingurunean, oinarri zientifikoak aplikatuta eta tresna edo arrazoibide matematikoak erabilita. Hala, ohiturak baloratu, sustatu eta har daitezke, garapen jasangarriarekin bateragarriak, ingurumen-inpaktu negatiboak saihestu edo gutxitu ditzaket.

Faktore hauek, besteak beste, eragina dute egungo ingurumen-egoera zailean: gizakion jarduera, emisio kutsatzaile asko sortzea eta baliabide naturalak neurrigabe erabiltzea. Gizakion jarduerak ingurunean aldatzeak asko eragiten dituela jakiteak berekin ekarri du herritarren interesa piztea ingurumena zaintzeko eta errespetatzeko. Aurrerabideak eta aurrerapen soziologikoek dituzten efektuen gaineko kezka eragiten du gero eta gehiago ezagutu eta aztertu behar izatea nola eragiten duten prozesuek, ohiturek eta jokabideek ingurumenean. Hori horrela, zientzia eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoak oso lagungarriak dira bizi-ohitura jasangarriagoak eta ingurumenarekiko errespetuzkoagoak sustatzeko, Garapen Jasangarriko Helburuak eta 2030 Agenda erreferentzia gisa hartuta.

Konpetentzia espezifikoko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: STEM5, KD4, KPSII2, HK4.

1.1.4.– Ingeniaritza-diseinuaren eta pentsamendu konputazionalaren printzipioak barneratzea, eta ulertzea nola funtzionatzen duten gailu teknologikoek ingurune eta aplikazio desberdinetan, aintzat hartuta lotuta daudenak ingurumen-alderdiak eta segurtasun digitalarekin eta datuen babesarekin, laguntzeko hala teknologiaren erabilera etiko, arduratsu eta eraginkorra sustatzeko hainbat testuingurutan nola teknologia-arloko aurrerapen eta berrikuntza jasangarriak.

Konpetentzia espezifiko horrek berekin dakar pentsamendu konputazionalaren ezagutzak eta printzipioak aplikatzea sistemak diseinatzeko, eraikitze edo simulatzeko prozesu sortzailean. Horrenbestez, algoritmoak diseinatzeko eta aktibatzen dira helburu espezifikoak betetzeko, hala nola aplikazio informatikoak garatzea, problema zehatzak ebazten dituztenak; prozesuak automatizatzea, eta sistema teknologikoak kontrolatzea.

Bestetik, ikuspegi horrek eskatzen du ondo ulertzea nola funtzionatzen duten ikaskuntza-ingurune pertsonaleko gailuek eta aplikazio teknologikoek. Besteak beste, funtsezkoa da gailuen hardwarearen eta softwarearen oinarritzko ezagutzak izatea, jakitea nola identifikatu eta konpondu gerta daitezkeen gorabehera txikiak eta nola egokitu gailuak norberaren premietara.

Gaitasun honek, halaber, eskatzen du aintzat hartzea segurtasun digitalarekin eta datuen babesarekin lotutako zenbait kontu, teknologia askotariko testuinguruetan garatzen eta erabiltzen baita. Horretarako, segurtasun-neurriak ezagutu eta aplikatu behar dira, informazio pertsonala babesteko eta bermatzeko teknologia modu etiko eta arduratsuan erabiltzen dela.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK2, KE2, STEM1, STEM3, STEM4, KD1, KD2, KD4, KD5, KPSII1, KPSII2, KPSII4, KPSII5, EK1, EK3.

1.1.5.– Tresna analogiko eta digitalak erabiltzea problemak ebazteko eta ikerketa-proiektuak gauzatzeko, metodo zientifikoa eta pentsamendu logiko-matematikoa erabiliz, ikerketa-proiektuak elkarlanean garatzeko. Horretarako, sustatuko da emaitzak komunikatzen eta adierazten dituzten materialak egitea, kontuan hartuta segurtasun digitala eta datuen babesa.

Tresna digitalek aukera ematen dute ikerketa zientifikoetatik ateratako datuak antolatze eta irudikatzeko, eta, horri esker, datuok errazago ulertzen, azaltzen eta zabaltzen dira. Era berean, elkarlanerako plataformek banakako nahiz taldeko ikaskuntza ahalbidetzen duten inguruneak eskaintzen dituzte, eta materialen gordailu gisa ere balio dute, behar denean berriro kontsultatzeko. Ikaskuntza-prozesuan zehar, ikasleek jakin behar dute eskuragarri dauden material batzuk aurreko lanen emaitza direla, eta haien egile-eskubideak kontuan hartu eta errespetatu behar dituztela, bat etorritik indarrean dagoen legediarekin. Horrenbestez, irudiak, grafikoak, testuak eta halakoak erabiltzeko, kontuan hartu beharko da haien sailkapen espezifikoak, eta behar bezala aipatu beharko da zein iturritatik hartu diren eta nor den egilea; horrez gain, lanon pribatutasuna ere errespetatu beharko da.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, STEM4, KD2, KD3, KE1.

1.1.6.– Zientziak eta matematika askotariko testuinguruetan identifikatzea eta baloratzea, eta kontzeptu, prozedura eta jokabideak elkarren artean erlazionatzea, eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzeko; eta, bestetik, aitortzea teknologiak funtsezko zeregina duela ezagutza zientifikoa aplikatzeko eta zabaltzeko orduan.

Diziplina zientifiko-teknologikoen eta eguneroko bizitzaren arteko harremana aitortzea lagungarria da ikasleen konpetentzia zientifiko-teknologikoak hobetzeko. Funtsezkoa da ikasleek aukera izatea ulertzeko zientzia etengabeko bilakaera-prozesuan dagoela, teknologia eta gizartea bezalaxe, eta zientzien izaera diziplinarteko eta integratzaileak lagundu duela gizateriaren arazo garrantzitsuak konpontzen. Horrenbestez, konpetentzia hau garatzeak berekin dakar zientziak bizitza errealarekin lotzea berezko dituen ideia, kontzeptu eta prozedurak, eta aplikatzea ikaslearen ingurune pertsonal eta sozialeko askotariko egoeretan arazoak konpontzeko.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: STEM1, STEM2, STEM5, STEM6, KPSII5, HK4, EK1, KAKK2.

1.1.7.– Trebetasun pertsonalak garatzea; horretarako, emozioak identifikatu eta kudeatu behar dira, akatsa onartzeko estrategiak praktikan jarri behar dira (ikaskuntza-prozesuaren parte gisa), eta

jakin behar da ziurgabetasun-egoeretan egokitzen, helburuak betetzeko prozesuetan pertseberantzia hobetzeko eta zientziak ikasteari balioa emateko.

Zientziak eta matematika ikasteko prozesuan trebetasun emozionalak eskuratzeak ikasleen ongizatea, emozioen erregulazioa eta esparruko ikaskuntzarekiko interesa sustatzen ditu. Konpetentzia hau garatzeko, emozioak identifikatu eta kudeatu behar dira, estres-iturriak ezagutu behar dira, saiaturia izan behar da, modu kritiko eta sortzailean pentsatu behar da, erresilientea izan behar da, eta jarrera proaktiboa eduki behar da erronka berrien aurrean. Konpetentzia hau eskuratzen laguntzeko, ikasleek erronka txikiei aurre egin behar diete, norberaren pentsamenduari buruz hausnartzeko, egon daitezkeen blokeoak saihesteko eta esparruaren ikaskuntza-prozesuaren aurrean autokontzeptua hobetzen laguntzeko.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: STEM5, KD2, KPSII1, KPSII4, KPSII5, HK1, EK1, EK3.

1.1.8.– Trebetasun sozialak garatzea eta elkarlanean aritzea askotariko taldeetan, berdinen arteko hazkuntza sustatzen duten rolak esleituta eta aintzat hartuz zer garrantzitsua den STEM esparruan genero-rolak baztertzea.

Zientziak berekin dakar profesionalen artean komunikatzea eta lankidetzan aritzea, eta, gainera, ezagutza berriak sortuko badira, funtsezkoa da komunitate osoarekin partekatzea ikerketa-talde batek lortutako ondorioak eta prozedurak. Gainera, ezagutza horiek ikerketa eta aurkikuntza berriak egiteko oinarri izaten dira. Aipatzekoa da, halaber, elkarreragina eta lankidetzaren oso garrantzitsuak direla testuinguru zientifiko-teknologikoan. Talde-lanak aukera ematen du askotan oso desberdinak diren ikuspuntuak trukatzeko, eta hori oso aberasgarria izaten da ikerketaren emaitzentzat, baita parte-hartzaileen garapen pertsonalerako ere. Ikasleek jakin behar dute ezen, lankidetzan aritzeko, beharrezkoa dela komunikazio-trebetasunak eta trebetasun sozialak erabiltzea, eta jarrera tolerantia eta irekia izan behar dela besteen ideiak entzuteko, aintzat hartuta zer garrantzitsua den genero-rolak eta estereotipo sexistak haustea.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK5, KE3, STEM2, STEM4, STEM6, KD3, KPSII3, HK2, HK3, EK2.

## 1.2.– Ebaluazio-irizpideak.

|                                                                                                                                                                                                                                  |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                              |
| 1.1.– Ikuspuntu zientifiko-matematikotik interpreta daitezkeen egoerak identifikatzea, eta, bere kabuz, konexioak ezartzea mundu errealekin.                                                                                     |
| 1.2.– Kontzeptu eta informazio zientifikoak aurkitzea; horretarako, formatu desberdinetako datuak hautatu behar dira, iturri fidagarriak ezagutu, iturrien egiazkotasuna aztertu, eta informazio interesgarriena atera behar da. |
| 1.3.– Hiztegi zientifikoa eta terminologia egokia erabiltzea zientzien inguruko informazioa interpretatzean eta zabaltzean.                                                                                                      |
| <b>2. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                              |
| 2.1.– Eguneroko bizitzako gertakariak interpretatzea, metodo zientifikoa eta zientziarako lege eta teoriak aplikatuta.                                                                                                           |
| 2.2.– Gertuko testuinguru baten barruan zientziarekin erlazionatutako kontuak ebaztea, teknologia eta arazoibide matematikoa erabiltuta.                                                                                         |
| 2.3.– Testuinguruan jarritako problemak matematikoki formulatzea, hizkera tekniko eta sinbolikoa erabiliz, zientziak berezko dituen adierazpideekin.                                                                             |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>3. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 3.1.– Aztertzea zein diren organismoen ezaugarriak eta zer interakzio dituzten ekosistemetan, tresna eta arrazoibide matematikoak erabilia; eta, horren bidez, ohitura osasungarriak eta garapen jasangarria sustatzea.                                                                                        |
| 3.2.– Oinarri eta irizpide zientifikoak erabilia, arrazoitzea garrantzitsua den biodibertsitatea zaintzea, ingurumena kontserbatzea, ingurune izaki bizidunak babestea, garapen jasangarriak eta bizi-kalitateak.                                                                                              |
| 3.3.– Oinarritzko arrazoibide eta printzipio geologikoak erabilia, erliebe baten historia geologikoa azaltzea, eta identifikatzea zein diren haren elementu garrantzitsuenak,.                                                                                                                                 |
| 3.4.– Ebaluatzea zer efektu duten banakako ekintza jakin batzuek natura-ingurunean organismoan eta, eta ohitura osasungarri eta jasangarriak proposatzea, oinarritzat hartuta eskuratutako ezagutzak eta eskuragarri dagoen informazioa.                                                                       |
| <b>4. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 4.1.– Laguntzarekin, hainbat gailutarako aplikazio errazak programatzea, blokeen araberrako programazio-elementuak ondo erabilia eta edizio-tresnak aplikatuta.                                                                                                                                                |
| 4.2.– Egunerokoan arazo errazak konpontzeko erabiltzen diren gailu tradizional eta digitalak modu eraginkorrean eta segurtasunez erabiltzea, eta funtsean aztertzea zein diren datuak transmititzeko osagaiak eta elementuak, arriskuak ezagutuz eta datuak eta segurtasun-neurriak ezarriz ekipoak babesteko. |
| 4.3.– Bere kabuz, prozesuak, makinak eta objektuak automatizatzea; horretarako, robotak eta kontrol-sistemak aztertu, eraiki eta programatuko ditu, benetan eta simulazioen bidez.                                                                                                                             |
| 4.4.– Lagunduta, eduki eta material errazak sortzea; horretarako, behar bezala erabiliko ditu ikaskuntzako ingurune pertsonaleko tresna digitalak, bere premietara egokituz eta jabetza intelektuala errespetatuz.                                                                                             |
| 4.5.– Aintzat hartzea teknologia modu arduratsuan erabili behar dela eta sortutako energia kontsumitu behar dela, eta zer eragiten duen ingurumenean teknologia neurrigabe erabiltzeak.                                                                                                                        |
| <b>5. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 5.1.– Jarrera kritikoarekin aztertzea eta interpretatzea zer informazio zientifiko eta matematiko aurki daitekeen eguneroko bizitzan.                                                                                                                                                                          |
| 5.2.– Arazo bati konponbidea aurkitzea honako hauek erabilia: emandako datuak eta informazioa, norberaren ezagutzak, eta estrategia eta tresna egokiak; eta egiaztatzea ea konponbide hori egokia, koherentea eta baliozkoa den dagokion testuingururako.                                                      |
| 5.3.– Zenbait euskarri erabiliz, arazo eta proiektuen emaitzak zabaltzea, kontuan hartuta segurtasun digitala eta datuen babesa.                                                                                                                                                                               |
| 5.4.– Iturri fidagarriak erabiltzea eta ondo aipatzea, eta, kontsultak egitean eta edukiak sortzean, informazio zientifiko esanguratsua hautatzea.                                                                                                                                                             |
| <b>6. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 6.1.– Emakume eta gizon zientzialariek egindako aurrerapen zientifikoaren azterketa historikoa eginda, aitortzea zer ekarpen egiten dieten zientziek gizateriaren aurrerapenari eta egungo teknologia-, gizarte- eta ingurumen-erronkei.                                                                       |
| 6.2.– Aurretiko esperientzietan oinarrituta, identifikatzea zer konexio dagoen zientzietako ezagutza-eremuen artean, eguneroko bizitzako zenbait testuingurutan gerta daitezkeen arazoak konpontzeko.                                                                                                          |
| 6.3.– Zientzietan ohikoak diren prozeduren bidez, formula eta konpon daitezkeen egoerak konpontzea, eta identifikatzea zer lotura dagoen mundu errealean eta zientifikoaren artean, ikerketak berezko dituen prozesuen bidez: ondorioztatu, neurtu, komunikatu, sailkatu eta aurreikusi.                       |
| <b>7. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 7.1.– Erresilientea izatea erronka akademikoaren aurrean, eta akatsak eta ziurgabetasun-egoerak ikustea hobetzeko aukera gisa zientziak ikasteko prozesuan.                                                                                                                                                    |
| 7.2.– Jarrera positibo eta saiaturia izatea ikaskuntza zientifiko-teknologikoarekiko, eta norberaren emozioak kudeatzea eta ongizate fisiko nahiz mentala helburu izatea, ikaskuntzari buruz hausnartuz eta baloratuz zer toki duten zientziek mundu errealean.                                                |

**8. konpetentzia espezifikoa.**

8.1.– Projektu zientifiko-teknologiko baten barruan, zeregin jakin bat arduraz hartzea, eta taldeari balioa ematea, modu kritikoan aztertzea zer ekarpen egiten duten gainerako taldekideek, aniztasuna errespetatzea eta inklusioa sustatzea.

8.2.– Lagunduta eta metodologia egokiarekin bat etorritik, gizartea hobetzea helburu duten proiektu zientifiko-teknologiko kolaboratiboei ekitea.

**1.3.– Oinarrizko jakintzak.****A) Trebetasun zientifiko-teknologikoak.**

Ikerketa zientifikoko metodologiak: gaiak identifikatu eta formulatzea, hipotesiak eta susmoak biltzea, eta hariak esperimientuen bidez egiaztatzea. Ikerketa-proiektuak.

Ikaskuntza zientifikorako ingurune eta baliabideak (laborategia eta baliabide digitalak): behar bezala erabiltzea, eta bermatzea osasuna, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua zainduko direla.

Hizkera zientifikoa: informazio zientifikoa modu eraginkorrean interpretatzea, ekoiztea eta komunikatzea.

Aintzatestea zer ekarpen egiten duten esparru zientifiko-teknologikoan, giza jakintzaren esparru desberdinetan eta gizartea modu jasangarrian garatzeko eta hobetzeko prozesuan lan egiten duten pertsonak.

Magnitude fisikoen neurria eta zenbakizko adierazpena: magnitude-ordena, notazio zientifikoa, neurketen doitasunaren adierazleak, eta neurketa-unitateen emaitzak eta garrantzia.

Problema zientifiko-teknologikoak ebazteko estrategiak.

**B) Zenbakizko zentzua.**

Esanguratsuak diren zenbaki naturalak, osoak, dezimalak, arrazionalak eta irrazionalak: interpretatzea, zenbakizko zuzen batean ordenatzea, eta eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko aplikatzea.

Zenbaki naturalak, osoak, arrazionalak edo dezimalak erabiliz egin beharreko eragiketak edo eragiketen konbinazioak: identifikatzea, propietateak zehaztea, eta arazoak konpontzeko aplikatzea. Kalkulu mentalerako estrategiak, eskuz edo kalkulagailuarekin.

Zatitzaileak eta multiploak: zer erlazio duen zenbaki lehenen faktORIZAZIOAK problemen ebazpenean, eta nola erabili problemak ebazteko.

Arrazoiak, proportzioak eta portzentajeak: problemak ulertzea eta ebaztea. Eguneroko testuinguruetan erabiltzea: portzentajeen gorakadak eta beherakadak, beherapenak, deskontuak, zergak, etab. Proportzionaltasun zuzena eta alderantzizkoa: eskalak, dibisa-aldaketak eta halako problemak ebaztean ulertzea eta erabiltzea.

Erabakiak hartzea: kontsumo arduratsua, kalitate-prezio erlazioak eta prezioaren balioa eguneroko testuinguruetan.

**C) Neurriaren zentzua.**

Forma lau eta tridimentsionalen eta ikasleen inguruko objektuen neurriak baloratzeko eta kalkulatzeko estrategiak.

Perimetroak, azalerak eta bolumenak: interpretatzea, formulak ateratzea eta forma lau eta tridimentsionaletan aplikatzea.

Objektu tridimentsionalen irudikapen laua: diseinatzea, irudikatzea eta problemak ebazteko erabiltzea.

Marrazketarako tresnak eta tresna digitalak: erabiltzea, objektu geometrikoen marrazkiak egitea aurrez ezarritako neurriekin (CAD).

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>D) Zentzu espaziala.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| Objektu tridimentsionalen irudikapen laua: irudikatzea eta problemak ebazteko erabiltzea.                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| Bi eta hiru dimentsioko forma geometrikoak: deskribatzea eta beren propietate edo ezaugarrien arabera sailkatzea.                                                                                                                                                                                                                                             |
| Objektu geometrikoak: marrazketa-tresnekin, manipulazio-tresnekin eta tresna digitalekin eraikitzea (geometria dinamikoko programak, errealitate areagotukoak...).                                                                                                                                                                                            |
| Koordenatu kartesiarrak: erlazio espazialak aurkitzea eta deskribatzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| <b>E) Zentzu aljebraikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| Patroiak: identifikatzea eta zabaltzea, egitura zenbakizko, espazial, grafiko eta aljebraiko errazak osatzeko araua erabilia.                                                                                                                                                                                                                                 |
| Aldagaia: erlazio errazak hizkera aljebraikoaren bidez ulertzea eta adieraztea. Lehen eta bigarren mailako adierazpen aljebraikoen arteko baliokidetasuna.                                                                                                                                                                                                    |
| Ekuazio linealak eta koadratikoak: ebazpen aljebraiko eta grafikoa problemak ebazteko eta soluzioak interpretatzeko testuinguruetan. Erlazio linealak, koadratikoak eta alderantzizko proportzionaltasunekoak: testuinguruan jarritako egoerak interpretatzea (egoera horiek esaldi, taula, grafiko edo adierazpen analitiko baten bidez deskribatuta daude). |
| <b>F) Pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika, eta ikaskuntza-ingurune pertsonalaren digitalizazioa.</b>                                                                                                                                                                                                                                        |
| Problemak algoritmoen bidez ebaztea. Algoritmoak interpretatzeko eta aldatzeko estrategiak. Adimen artifizialaren oinarrizko alderdiak: aplikazioak.                                                                                                                                                                                                          |
| Oinarrizko elektronika analogiko eta digitala. Aljebra boolearrerako sarrera. Ate logikoak. Zirkuituen muntaketa edo simulazioa.                                                                                                                                                                                                                              |
| Robotikari aplikatutako elementu mekanikoak, elektronikoak eta pneumatikoak. Zirkuitu errazen eskemak interpretatzea. Muntaketa fisikoa edo simulatua.                                                                                                                                                                                                        |
| Robotak programatzea blokeen programazio-lengoaiei bidez.                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| Gauzen Internet. Aplikazio praktikoak: IoT sistemak diseinatzea eta blokeen bidezko sistema programatzea.                                                                                                                                                                                                                                                     |
| Ordenagailua eta gailu mugikorrak programazio- eta kontrol-elementu gisa. Espazio partekatutako eta disko birtualak. Gailuen konfigurazioa eta arazo tekniko errazen ebazpena.                                                                                                                                                                                |
| Sareko segurtasuna: arriskuak, mehatxuak eta erasoak. Datuak eta informazioa babesteko neurriak: antibirusa, suebakiak eta proxy zerbitzariak. Eduki desegokietarako edo adikzioak sor ditzaketan edukietarako sarbidearen prebentzioa.                                                                                                                       |
| Jabetza intelektual. Creative Commons lizentziak. Lan bati lizentzia emateko arauak.                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| Administrazio-kudeaketak: online zerbitzu publikoak eta ziurtagiri digitalak. NAN elektronikoa. Sinadura elektronikoa. EKS.                                                                                                                                                                                                                                   |
| <b>G) Zentzu estokastikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| Azterlan estatistikoen diseinua: galderak egitea, datuak antolatzea, taula eta grafiko egokiak egitea, lokalizazio- eta sakabanatze-neurriak kalkulatzeko eta interpretatzeko kalkulagailuarekin eta kalkulu-orriarekin. Informazio estatistikoaren analisi kritikoa eta interpretazioa eguneroko testuinguruetan, eta arrazoitutako ondorioak eskuratzea.    |
| Fenomeno determinista eta aleatorioak. Zoria eta probabilitaterako hurbilketa: maiztasun erlatiboa. Laplace-ren araua eta zenbaketa-teknikak. Esperimentu errazen gaineko erabakiak hartzea zenbait testuingurutan.                                                                                                                                           |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>H) Materia eta haren aldaketak.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| Teoria zinetiko-molekularra: sistema materialen propietate garrantzitsuenak aplikatzea eta azaltzea.                                                                                                                                                                                                                                             |
| Materiaren konposizioa: deskribatzea, atomoen eta konposatuen egiturari buruzko ezagutzak oinarri hartuta.                                                                                                                                                                                                                                       |
| IUPAC arauen arabera esanguratsuenak diren substantzia kimikoen nomenklatura. Ekuazio kimiko errazak: interpretazio kualitatibo eta kuantitatiboa. Kalkulu estekiometriko errazak eta eragiten dieten faktoreen interpretazioa.                                                                                                                  |
| Esperimentazioa sistema materialekin: propietateen, konposizioaren eta sailkapenaren ezagutza eta deskribapena.                                                                                                                                                                                                                                  |
| Material motak. Propietateak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <b>I) Interakzioak eta energia.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| Gorputzen mugimendua: magnitude zinetikoak deskribatzea, eta: kasu bakoitzerako egokiak direnak erabiltzea.                                                                                                                                                                                                                                      |
| Indarren eta sistemen gainean eragiten dituzten aldaketen arteko erlazioa, eta naturan dauden indarrekin lotutako eguneroko bizitzako problemak ebazteko aplikatzea.                                                                                                                                                                             |
| Energia: hipotesien analisia eta formulazioa, energiaren propietateak eta transferentzia eta energia-adierazpenak, eta energia eskuratzeko eta kontsumitzeko prozesua lotzea gertuko ingurunean eragiten dituen ingurumen-ondorioekin.                                                                                                           |
| Elektrizitatea: korrante elektrikoa zirkuitu sinpleetan. Magnitudeak modu esperimentalean eskuratzeko eta horien arteko erlazioa. Segurtasun- eta prebentzio-neurriak.                                                                                                                                                                           |
| <b>J) Giza gorputza eta osasuna.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| Zelula giza gorputzaren egitura- eta funtzio-unitate gisa. Mikroskopia eta lupa erabiltzea.                                                                                                                                                                                                                                                      |
| Nutrizioaren funtzioa eta garrantzia. Digestio-aparatuaren, arnas aparatuaren, zirkulazio-aparatuaren eta iraitz-aparatuaren anatomia eta fisiologia. Haien arteko erlazioa. Ugalketaren funtzioa eta garrantzi biologikoa. Ugaltze-aparatua: anatomia eta fisiologia.                                                                           |
| Sexu-praktika arduratsuen garrantzia. Asertibitatea eta auto zaintza. Sexu-transmisiozko infekzioak (STI) eta nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzea. metodo antisorgailuen eta STGak prebenitzeko metodoak egokiro erabiltzea. Hezkuntza afektibo-sexuala, pertsonen arteko berdintasunaren eta sexu-aniztasunarekiko errespetuaren ikuspegitik. |
| Harremanen funtzioa eta garrantzia. Zentzumen-hartzaileak, koordinazio-zentroak eta organo efektoreak: funtzionamendu orokorra.                                                                                                                                                                                                                  |
| Ohitura osasungarriak (legezko eta legez kanpoko drogen kontsumoaren prebentzioa, gorputz-jarrera egokia, autorregulazio emozionala, dieta orekatua, gailu teknologikoen erabilera arduratsua, ariketa fisikoa eta loaren higieena, besteak beste): haien garrantziari buruzko argudiaketa zientifikoa.                                          |
| Sistema immunea, antibiotikoak eta txertoak: funtzionamendua eta garrantzia, gaixotasun infekziosoak prebenitzeko eta gainditzeko. Transplanteak: aztertzea zer garrantzia duten gaixotasun jakin batzuen tratamenduan, eta organoak emateari buruz hausnartzea.                                                                                 |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>K) Lurra sistema gisa eta garapen jasangarria.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| Atmosfera eta hidrosfera: funtzioak, biosferarekin eta geosferarekin batera edafogenesian duten zeregina eta Lurreko bizitzarako garrantzia.                                                                                                                                                                                                                      |
| Ekosistemak: haien osagai biotiko eta abiotikoak, eta espeziebarneko eta espeziearteko erlazioak. Ikasleen ingurune hurbileko ekosistema batzuk aztertzea.                                                                                                                                                                                                        |
| Klima-aldaketa: aztertzea kausa-faktoreak eta zer ondorio izan ditzakeen, eta hausnartzea banakako nahiz taldeko ekintzek zer efektu izan ditzaketen mundu-mailan. GJHetako 13.aren erlazioa: «Klima-aldaketa eta bere eraginei aurre egiteko neurri urgenteak hartzea».                                                                                          |
| Barneko eta kanpoko fenomeno geologikoak: desberdintzea, jakitea nola agertzen den lurrazalean, eta planetaren dinamika globalari buruz argudiatzea, plaken tektonika oinarri hartuta.                                                                                                                                                                            |
| Arrisku naturalak: ezartzea zer erlazio duten fenomeno geologikoekin eta giza jarduerak jakin batzuekin, eta baloratzea zer garrantzia duen erliebea eta naturaren zikloak errespetatzeak garapen ekonomiko eta sozialaren barnean.                                                                                                                               |
| <b>L) Zentzu sozio afektiboa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| Ikaskuntzan eta jakin-minaren, ekimenaren, pertseberantziaren eta erresilientziaren garapenean esku hartzen duten emozioak ezagutzeko estrategiak, baita zientzia ikasteko eta ulertzeko plazerra ere. Malgutasun kognitiboa areagotzen duten eta aldaketak hobeto onartzea ahalbidetzen duten estrategiak, akatsa ikaskuntza-aukera bihurtzen laguntzen dutenak. |
| Taldeko lana hobetzen duten teknika kooperatiboak ezartzea, jokabide enpatikoa izatea, eta gatazkak kudeatzeko estrategiak aplikatzea.                                                                                                                                                                                                                            |
| Jarrera inklusiboak: benetako genero-berdintasuna, erantzunkidetasuna, gutxiengoenganako errespetua eta ikasgelako nahiz gizarteko aniztasuna aberastasun kultural gisa ikustea. Abusuak, erasoak, indarkeria-egoerak edo integritate fisiko, psikiko eta emozionala urratzen dituztenak identifikatzeko eta prebenitzeko estrategiak.                            |

## 2.– Hizkuntza- eta gizarte-esparrua.

Aldaketa eta aurrerapen teknologiko, zientifiko eta produktibo handiak bereizgarri dituen egungo gizarte-testuinguruan, ikasleak konpetentzia batzuk garatu behar ditu, herritar independente eta aktibo izaten lagunduko diotenak, gaur egungo errealitatearekin konektatuta egon dadin. Curriculum anitzeko programaren hizkuntza- eta gizarte-esparruak komunikazioaren dimentsioa eta dimentsio soziala uztartzen ditu; horri esker, programan parte hartzen duten ikasleek beren komunikazio-eraginkortasuna eta ezagutza soziala hobetuko dituzte, errazago garatzeko aurreragoko prestakuntza akademikoan sartzeko eta gizartean nahiz lan-munduan integratzeko behar diren konpetentziak.

Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Geografia eta Historia eta Atzerriko Hizkuntza esparru batean biltzeak aukera ematen du elkarren artean lotuta dauden ikasgai horietako jarrerak, prozedurak eta edukiak erlazionatzeko. Antolaketa horri esker, gaur egungo eta duela gutxiko iragan historikoko gaien inguruko jarduerak diseina daitezke, ikasleak hausnarketa egitera anima daitezten eta estimulua izan ditzaten aktiboki parte hartzeko ikasgelako eguneroko bizitzan. Hizkuntza- eta gizarte-esparruak aukera ematen du, halaber, eskura dauden baliabideak hartu eta ikasgelaren errealitate espezifikora egokitze; hala, ikasleek oinarriko konpetentziak erraz garatzen dituzte, esparruko ikasgaietan eskuratutako ezagutzak modu integratuan erabiltarazten dituzten diziplinarteko jarduerak eta zereginen bidez.

Hizkuntza- eta gizarte-esparruko curriculumaren ardatza elementu hauek integratzean datza: alde batetik, dimentsio soziala, zenbait funtsezko ikaskuntza barne hartzen dituen, hala nola informazioarako eta iturrietarako sarbidea eta haien hautaketa kritikoa egitea, ikaskuntzak tokiko eta mundu-mailako inguruneetan kokatzea, egoera eta arazo sozialak ikuspegi historikotik ulertzea, Garapen Jasangarrirako Helburuek planteatutako erronkak, elkartasuna eta gizarte-kohesioa aplikatzea,

aniztasun kultural eta soziala errespetatzea, ondarea baloratzea eta kontserbatzea, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna defendatzea, eta diskriminazioaren aurka borroka egitea; eta, bestetik, komunikazioaren dimentsioa ere integratuko du, zeinak berekin baitakar komunikatzeko eraginkortasuna hobetzea eta hizkuntzaren funtzionamenduari eta haren erabilerei buruz hausnartzea, hizkuntza desberdinetan ondo eta eraginkortasunez komunikatzea eta norberaren errepertorio linguistikoa zabaltzea, ikasle bakoitzaren esperientzietatik abiatuta. Esparru honetan, alderdi hauek ere sustatuko dira: irakurtzeko ohitura hartzea, aniztasun kulturala onartzea eta aniztasun horretara egokitzea, eta kulturarteko elkarriketak errespetatzea eta haien jakin-mina izatea.

Komunikazioaren esparruaren kasuan, ikasgai linguistikoak curriculum bakar batean biltzearen helburu nagusia da ikaskuntza linguistikoak errentagarri egitea; izan ere, horri esker, ikasleek ahalik eta gehien garatuko dute beren ikaskuntza linguistikoak transferitu eta konpetentzia linguistiko eleaniztuna, hizkuntzak horien elementu komuneetatik abiatuta irakatsiko baitira, betiere kontuan izanda zer elementuk bereizten duten hizkuntza bakoitza, eta errespetuzko harremana ezarri hizkuntza guztien artean.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako oro har ezarritako konpetentzia espezifikoak dira esparru honetako konpetentzia espezifikoaren erreferente nagusi eta, zehatzago, esparru honetan sartzen diren ikasgaiei dagozkien konpetentziak espezifikoak. Hauek dira esparru honetako konpetentzia espezifikoaren helburuak: nazioarteko alfabetatzea izatea eta, aldi berean, manipulazio- eta desinformazio-arriskuei aurre egiteko estrategiak erabiltzea; teknologia modu etiko, seguru eta arduratsuan erabiltzea; ikasleek beren eskubide eta betebeharrak arduraz erabiltzea, eta, horretarako, gizarteak, Europaren osaera, balio demokratikoak eta herritartasunaren ideia ondo ezagutzea; behar bezala komunikatzea euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzan, eta, halaber, jakitea zer harreman dagoen hizkuntzen artean, gure egoera soziolinguistikoa ezagutzea eta gure gizarteak aniztasun linguistiko eta kulturala errespetatzea; irakurtzeko ohitura hartzea, eta banakako nahiz taldeko lanerako trebetasun pertsonal eta emozionalak garatzea.

Curriculum honen konpetentzien araberrako ikuspegiari jarraituz, ebaluazio-irizpideek aukera ematen dute ezartzeko zenbateraino garatu diren esparru honetako konpetentzia espezifikoak, eta prozesuei eta produktuei arreta ematen diete modu irekian, malguan eta curriculumaren barruan elkarren arteko loturak errespetatuz. Horrek esan nahi du askotariko ebaluazio-tresnak erabiltzen direla, diagnostikoa egiteko eta hobetzeko ahalmena ematen dutenak. Ebaluazioaren dimentsio-aniztasun horri esker, trebetasunak eta prozesuak ezagutzeko, garatzeko eta abian jartzeko prozesuak erlazionatu egiten dira, baita jarrera, balio eta konpromisoak aplikatzeko eta barneratzeko prozesuak ere; hori dela eta, irizpideek hezkuntza-asmo eta -estrategien gidalerro izan behar dute.

Bestalde, oinarritzeko jakintzetan sartzen dira esparru honetako konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoak diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea), eta haiek guztiek ahalbidetzen dute irizpideen bidez ikaskuntzak ebaluatzea. Espero da ikaslea gai izatea bere ingurunean errealitateko esparruetan agertuko zaizkion komunikazio-egoeretan ikaskuntza horiek guztiak martxan jartzeko. Zortzi bloketan banatuta daude, eta haietan aurrera egitea abian jartzen diren prozesuen konplexutasunaren eta ikasleen heldutasun pertsonal sozialaren mende dago, haren garapen eta trebetasunekin bat.

## **2.1.– Konpetentzia espezifikoak.**

2.1.1.– Arazo geografiko, historiko eta sozialei buruzko informazioa hizkuntza desberdinetan bilatzea, aztertzea, interpretatzea eta aukeratzea, pixkanaka gero eta modu autonomoagoan; informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzea, irakurketaren helburuak aintzat hartuta eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz; eta informazioa barneratu eta ezagutza bihurtzea, gero ahoz eta idatziz jakinarazteko, askotariko euskarri eta formatuetan.

Gure ingurunean aurki dezakegun informazioaren kopurua eta aniztasuna aintzat hartuta, beharrezkoa da ikasleek zenbait gaitasun eta trebetasun eskuratzeko informazioa landu eta ezagutza

bihurtzeko, eta gai izatea jakiteko informazioa noiz den beharrezkoa, non bila daitekeen, nola kudeatu behar den, nola ebaluatu behar den eta nola jakinarazi behar den. Halaber, informazio hori zabaltzean ikuspuntu kritiko eta pertsonala eman behar zaio, eta jarrera etiko, arduratsu eta errespetuzkoa eduki behar da jabetza intelektualeko lizentziekin eta nortasun digitalarekin.

Lortu behar da ikasleek, banaka nahiz taldean lanak edo proiektuak egitean, informazio-iturri askotarikoak, fidagarriak eta seguruak kontsultatzea testuinguru sozial eta akademikoetan, lanok izan curriculumeko gai ei buruzkoak edo gaurkotasun sozial eta kulturalako gai garrantzitsuei buruzkoak. Lan edo proiektu horiek pixkanaka modu autonomoan gauzatu behar dira, haien plangintzari dagokionez, eta errespetatu egin behar dira eskuratutako ezagutza dibulгатzeko erabiltzen diren norberaren ekoizpenak aurkezteko ezarritako konbentzioak: epigrafeetan antolatzea; aipamenak, oharak, bibliografia eta webgrafia jasotzeko prozedurak. Nahitaezkoa da, halaber, ikaskuntza berria zabaltzean sormena garatzea eta testuingurura egokitzea.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK3, KAKK3

2.1.2.– Ulertzea zein diren sistema demokratikoaren oinarritzko printzipioak eta komunitateko bizitza zuzentzen duten printzipio konstituzional eta autonomikoak, eta haiek baloratzea, eta modu kritikoan aztertzea planteamendu historiko eta geografikoak, haien adierazgarri diren instituzioak eta erakunde politiko nahiz ekonomikoak, bere gain hartuta komunitatean bizitzeko ditugun betebeharrak eta eskubideak herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatzeko.

Konstituzioek biltzen dituzte estatuen bizikidetzaren ereduak osatzen dituzten printzipioak eta oinarriak, eta bermatzen dute gure askatasun eta eskubideak baliatu ahal izango ditugula; aldi berean, erantzukizun zibila, herritarren ekimena eta gizarte-kohesioa ere sustatzen dituzte. 1978ko Konstituzioa eta 1979ko EAEko Autonomia Estatutua gure gertuko iraganeko une jakin bateko produktuak dira (Demokraziarako Trantsizioa), baina, zalantzarik gabe, ibilbide luzeago baten jarraipena dira, zeinetan historian izan diren antolaketa politiko mota desberdinekin erlazionatzen den, egungo sistema demokratikoak eraiki arte. Historia hori ezagutzeak berekin dakar egungo demokraziarako bidea eta memoria demokratikoa aintzatestea, eta agerian jartzea zer ekarpen egin duten pertsona guztiek. Ekarpene horien artean, aipatzekoa da emakumeek bizitza sozial eta politikoan eskubide osoko herritar gisa parte hartu ahal izateko egin duten borroka, zeinak, beren konpromisoaren bidez, zehaztu baitute gaur egungo gizarte- eta zuzenbide-estatua.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK5, KE3, HK1, HK2, KAKK1.

2.1.3.– Ezagutzea eta aztertzea zein diren sistema ekonomiko desberdinak eta nola garatu diren historian zehar; aurrerapenaren ideien esanahia baloratzea, kontuan hartuta zer eragin izan duen gizartearen, ingurumenean eta lurraldean, ulertzeko nolakoa den gaur egungo mundu ekonomikoa eta zer hegemonia- eta mendekotasun-erlazio dituen, eta konturatzeko zer garrantzia duen gizarte-eskubideetarako eta oinarritzko baliabideetarako sarbide unibertsalaren garrantzia.

Ekonomiak historian zehar mundu-mailan izan duen bilakaera aztertzea lagungarria izango da ikasleek ulertzeko zer-nolako erlazioa duen gizartearen garapenarekin eta jakiteko zein den egungo egoera. Globalizazioa ekonomia funtzionamendua ondo ulertzeko, lehenik eta behin haren jatorri historikoa aztertu behar da, eta oinarritzko zenbait kontzeptu ulertu behar dira. Bestetik, bilakaera ekonomikoak historiaren panoramika bat eskaintzen du, eta azaltzen du zergatik daukagun gaur egungo eredu eta zergatik sortu zaigun gizarte-ongizatea edo jasangarritasuna bezalako gaiak kudeatzeko beharra. Azken horrek berekin dakar, gainera, modu kritikoan begiratzea aurrerapenaren ideiei eta haren deribazio politiko, ekonomiko eta sozialei. Kontuan hartu behar da ezen, historikoki, hazkunde ekonomikoak ez dituela lehentasun gisa izan aberastasunen banaketa eta ingurumen-efektuak, eta horrek hainbat ondorio ekarri ditu. Gaur egun, oraindik ere arrisku-egoerak badaude, eta zenbait pertsonak ezin dituzte bete gizarte-eskubideak izateko edo oinarritzko baliabideak eskuratzeko

helburuak, besteak beste. Gizaki orok eskubidea dauka hazteko eta pertsona gisa garatzeko, eta, horretarako, kanpo-baliabideak behar ditu, bera barne hartzen duen gizarteak emango dizkionak. Ikasleek ulertu behar dute gizarte-eskubideak errespetatzen dituen ingurune batek ongizate kolektiboaren zerbitzura jartzen duela bere aberastasuna.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, STEM5, KD1, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, HK4.

2.1.4.– Identitate kolektibo desberdinen jatorriak eta kausa historikoak ulertzea eta azaltzea, baita munduko konfigurazio eta herentzia sozial, politiko eta kulturalerako elementu gisa duten zeregina ere; eta kritikoki aztertzea identitate horien bilakaera, egun duten esanahia ulertzeko, identitate horietako kide izatearen sentimenduak errespetatzeko eta baloratzeko zer ondare-aberastasun eta legatu historiko eta kultural sortu duten eta oraindik ere sortzen ari diren.

Identitate kolektiboen abiapuntua da komunitateen barruan sortzen diren lotura kultural eta afektiboak. Neurri handiago edo txikiagoan ezaugarri jakin batzuk partekatzeak eta haienganako lotura sentitzeak eramaten gaitu sentitzera talde bateko kide garela, eta sentimendu horrek norbanakoen identitateetan eragiten du. Gai hau da historiako eta, horrenbestez, gaur egungo gizarteko konturik konplexu eta gatazkatsuena. Hori dela eta, beharrezkoa da prozesu horiei arreta ematea eta ulertzea zer elementuk eragin duten identitate horiek sortzea, transmititzea eta bilakatzea, hala nola pentsamenduak, erlijioek, lurraldeak, arteak, hizkuntzak, adierazpen kulturek, etab. Bestetik, funtsezkoa da ulertzea zer mekanismo sozial eta emozionalek sortarazi duten eta sortarazten duten talde bateko kide izatearen sentimenduak.

Gai hau hainbat dimentsiotatik baloratu behar da, aintzat hartuta zer gatazka sortu diren kasu batzuetan. Berezik garrantzitsua da gizarte-kohesioaren eta lurralde-elkartasunaren printzipioak barneratzea, aitortzea zer sufrimendu jasan dute indarkeria ororen biktimek eta munduan dugun presentzia ulertzea mugak gaindituko dituen konpromiso anaikor eta unibertsal batetik, oinarritzat hartuta Europaren ideia eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako printzipioak. Ikasleek ikasten badute hainbat identitate kolektiboren adierazpenak errespetatzen eta ikasten badute aitortzen zer garrantzia duten adierazpen kultural eta artistiko horiek ondare komunaren parte gisa, ondare material eta immaterialaren esanahi historiko eta sinbolikoa ere ulertuko dute, eta lagungarria izango zaie ondare hori kontserbatzeko eta sustatzeko eta horri balioa emango dioten ekintzak sustatzeko.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: KE3, KPSII1, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.

2.1.5.– Ezagutzea eta deskribatzea zer prozesu geografiko, historiko eta kulturek ekarri duten gure errealitate kulturantzuna osatzea, aniztasunaren aberastasuna aitortzea, eta baloratzeko zer ekarpen egin duten berdintasunaren, inklusioaren eta gutxiengoak errespetatzeko aldeko mugimenduek, diskriminaziorik gabeko hizkuntza erabiliz eta hitzaren bidez albo batera utziz botere-abusuak; hala, hizkuntzaren erabilera etiko eta demokratikoa ahalbidetzeko.

Historia bilakaera ez-lineala da, aurrerapenez eta atzerapenez osatua, eta bilakaera horrek ekarri gaitu egungo mundu globalizatu honetara. Kulturantzatasuna prozesu historiko horien emaitza da, herri eta kultura desberdinen arteko harremanen eta interrelazioaren emaitza. Gauza bat argi dago: nahi badugu gizartearen barruan aniztasuna aitor dadila eta desberdintasunak errespetatu daitezela (eta hori funtsezkoa da ikasleak herritar gogoetatsuak izan daitezela, balio demokratikoak defendatzeko gai direnak), ezinbestekoa da eskubideen aldeko jarrera sustatzea eta diskriminazioa jasan duten kolektibo guztien benetako berdintasunaren aldeko jarrera sustatzea.

Diskriminazio oro prebenitzeko, behar-beharrezkoa da identifikatzea zer aurreiritzi ari diren ugaritzen gizartean, estereotipoak identifikatzeko eta gezurtatzeko; era berean, hori abiapuntua da gizarte-inklusioaren alde ekiteko. Horrenbestez, garrantzitsua da jarrera bereizle oro desagerraraztea, generoarekin lotutakoak barne. Horretarako, beharrezkoa da identifikatzea eta gaitzestea hizkuntzaren diskriminaziozko erabilera oro.

Konpetentzia espezifikorrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK5, KE3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

2.1.6.– EAEko eta inguruko errealitate soziolinguistiko eta kulturala ezagutzea eta baloratzea, eta aztertzea zein diren bertako hizkuntzen eta dialektoen ezaugarriak eta garapena, eta zein atzerriko hizkuntzenak ere; ikasleek jokabide enpatiko eta errespetuzkoa izan beharko dute hizkuntza eta kultura guztiekin, hausnarketa interlinguistikoa ahalbidetzeko, aurreiritzi kulturei aurre egiteko, aniztasuna aberastasun-iturri gisa aitortzeko, eta euskararen erabilerarekiko jokabide asertiboak sustatzeko.

Ikasleek ezagutu behar dute zein den Euskal Herriko eta Espainiako hizkuntzen eta inguruko hizkuntza atzeritarren jatorria eta garapen historiko eta soziolinguistikoa. Euskarari dagokionez, ikasleek jakin eta baloratu egin behar dituzte ezaugarri hauek: hizkuntza horren milaka urteko jatorria; zer ekarpen egiten dion ondare kulturalari; haren aniztasuna; zer ahalegin egin duten erakundeek eta euskararen aldeko taldeek, euskara batua sortu, eta hizkuntzaren batasuna sustatzeko, euskalki desberdinetako hiztunen arteko komunikazioa errazteko eta hizkuntza zaintzeko, eta zein den hizkuntzaren egungo egoera soziolinguistikoa. Gainera, hizkuntzaren erabilerarekiko jarrera proaktiboa izan behar dute, gure komunitatearen ondare artistiko eta kulturala zaintzen laguntzeko.

Aniztasun linguistiko eta kulturala egungo munduaren funtsezko ezaugarriak dira. Ikasgeletan ditugun ikasle batzuek ikaskuntza-hizkuntza edo -hizkuntzak ez diren beste hizkuntza edo dialekto batzuk erabiltzen dituzte, zeinu-hizkuntzak barne. Gure testuinguru heterogeneo eta eleaniztunean, aniztasun linguistiko eta kulturalaren kontzientzia hartzeak berekin dakar identifikatzea eta partekatzea zer antzekotasun eta alde dagoen hizkuntzen eta kulturen artean, eta jarrera enpatikoa izatea, aniztasun hori baloratu ahal izateko aberasteko eta gainerakoekin erlazionatzeko aukera modura.

Konpetentzia espezifikorrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.

2.1.7.– Euskarazko nahiz gaztelaniazko idatzizko testuak, ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, eta testuen esanahi orokorra eta informazio garrantzitsuena barneratzea; horrez gain, identifikatzea zein den igorlearen ikuspuntua eta asmoa, eta baloratzea ea fidagarria den, eta testuaren formari eta edukiari buruz hausnartzea, ezagutza eraikitzeke eta askotariko komunikazio-premia eta -interesei erantzuteke.

Idatzizko testuak, ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzeko, beharrezkoa da motibazioa eta konpromisoa izatea, entzuten eta irakurtzen praktikatzeko eta zenbait estrategia ezagutzea eta erabiltzea, bai testuak entzun eta irakurri aurretik, baita testuak entzun eta irakurri bitartean eta ondoren ere. Hala, helburua da edozein motatako testuak lantzeko konpetentzia izatea, eta autonomia izatea, testuon kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatzea, eta, testu horietan, beren bizitzako esparru guztietako hainbat helbururen erantzunak aurkitzea.

Hauek dira ahozko ulermenari lotutako trebetasun espezifikoak: edukia aurreratzea, informazio garrantzitsua atxikitzea helburuaren arabera, gertakariak eta iritziak bereiztea, ulertzea zein den diskurtsoaren esanahi orokorra edo zer erlazio dagoen diskurtsoaren zati desberdinen artean, eta testuaren fidagarritasuna, forma eta edukia baloratzea. Idatzizko testu bat ulertzeak hau esan nahi du: ulertzea zein den testuaren esanahi orokorra eta zein den informaziorik garrantzitsuena irakurketaren helburuaren arabera, informazio esplizitua barneratzea, eta beharrezko inferentziak egitea, ahalbidetzen dutenak testuaren zatien arteko erlazioa berreraikitzea, hipotesiak egitea testuen oinarrian dagoen komunikazio-asmoari buruz, eta testuaren forma eta edukiari buruz hausnartzea.

Hizkuntza-klaseetan, banatu egin behar dira ahozko testuei eta idatzizko testuei dagozkien esparruak; ikasgelan, testu horiekin lan egiteko testuinguru esanguratsuak sortu behar dira testuak gero eta konplexuak izan daitezen (luzera, egitura, hizkuntza, gaia, etab.) eta elkarren osagarri izan daitezen saiatur. Nahitaezkoa da curriculumeko beste ikasgai batzuekin koordinatuta lan egitea, eta hizkuntza-eta gizarte-esparruko beste curriculum-hizkuntzekin koordinatuta.

Konpetentzia espezifikoko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK2, HKK3, HKK5, KE2, KD1, KD2, KD3, STEM4, KPSII4, KPSII5, HK3.

2.1.8.– Idatzizko testuak, ahozko testuak eta testu multimodalak sortzea euskaraz eta gaztelaniaz (arin, koherentziarekin, kohesionatuta, zuzen eta erregistro egokia erabilita), eta idatzizko nahiz ahozko interakzioetan parte hartzea jarrera kooperatibo eta errespetuzkoarekin, hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko hausnarketa eginez eta askotariko tresna eta formatuak erabiliz komunikazio-eskaera jakin batzuei erantzuteko.

Idatzizko testuak, ahozko testuak eta testu multimodalak sortzeko, komunikazioaren arloko trebetasun espezifikokoak behar dira, ikasleen egoera, testuinguru eta behar pertsonal eta sozialetara lotuak eta egoera horien arabera definituak. Hori dela eta, diskurtso-praktikak garatu behar dira, azpimarratzen dutenak ahozko testuen, idatzizko testuen eta testu multimodalaren katalogo dibertsifikatu baten inguruko interakzioa eta adierazpena.

Ahozko ekoizpena garatzeko, beharrezkoa da diskurtso-praktikak egitea testuinguru esanguratsuetan, hala esparru publikoan nola pertsonalean edo etxeokan. Euskararen kasuan, testuinguru askotan ikaskuntza-hizkuntza denez, hizkuntza- eta gizarte-esparruan bereziki garrantzitsua da konpetentzia hau lantzea. Ikasgela barruan eta kanpoan, hainbat egoera sorrarazi eta sustatu behar dira ikasleak elkarrekin aritu daitezen, euskarak gizartean duen presentzia txikiagoa konpentsatzeko. Ezin dugu ahaztu ikasle asko ikastetxean bakarrik –edo ia ikastetxean bakarrik– egoten direla harremanetan euskararekin. Horrenbestez, beharrezkoa da ahaleginak bikoiztea hizkuntza horren ahozko erabilera formal eta informala lekualda dadin gizarte-bizitzara.

Ahoz aritzeko, beharrezkoa da ezagutzea zer estrategia erabili hitza hartzeko eta emateko, modu aktiboan eta errespetuz entzutea, erabilera diskriminaziozko edo sexistarik ez egitea, arin eta argi hitz egitea, tonu eta erregistro egokiak erabiltzea, eta elkarriketarako kortesia- eta kooperazio-estrategiak aplikatzea. Ahozko ekoizpen formalak (izan bakarriketa izan elkarriketa) plangintzarako aukera ematen du, eta, horrenbestez, idazketa-prozesuan erabiltzen diren estrategia batzuk erabil daitezke.

Ikas behar da erabilera-esparru desberdinetarako idatzizko testuak sortzen, genero diskurtsibo desberdinak behar bezala erabiliz. Hezkuntzaren esparruan, idazketa honetarako erabiliko da batik bat: apunteak, eskemak, kontzeptu-mapak eta laburpenak egiteko; sormenezko idazteko; testu akademikoak, analogiko eta digitalak sortzeko. Testuak idazteko prozesua autonomoa izan daiteke, zenbait ikasleren artean egin daiteke, edo irakasleak gidatu dezake; horrek eskatzen du ikasgelan esku-hartze planifikatu eta jarraitua egitea, baita hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko hausnarketa esplizitua egitea ere. Horrez gain, zenbait euskarri eta formatu ondo erabiltzen jakin behar da, baita hipertestuari dagozkionak eta multimodalak ere.

Konpetentzia espezifikoko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, EK1.

2.1.9.– Gero eta modu autonomoagoan hautatzea eta irakurtzea askotariko lanak eta testuak, plazer- eta ezagutza-iturri gisa, eta irakurketa-esperientziak baloratzea eta partekatzea, irakurle-nortasuna sortzeko eta jarduera horren dimentsio sozialaz gozatzeko.

Konpetentzia hori garatzeak berekin dakar aldian-aldian eta modu jarraituan tarte bat eskaintzea banaka irakurtzeari, eta, horrez gain, estrategia eta oinarri egokiak ezarri behar dira, irakurle gisa autonomia eta nortasuna sortzeko, bizitza osoko prozesua baita.

Garrantzitsua da hautatutako testuen artean euskal kultura-ondarearekin lotutako lanak egotea, eta emakume idazleen presentzia ere esanguratsua izatea. Kalitatezko obrak izan beharko dute, ahalbidetzen dutenak irakurketa autonomoa egitea eta norberaren irakurketa-esperientzia pertsonala aberastea. Egungo literatura-obrak, liburu zientifikoak, saiakerak eta monografiak irakurri behar dira, besteak beste, baita praktika kultural berriak ere. Horrez gain, komeni da: lan egitea irakurketa-

komunitate bat osatzeko, erreferente partekatuekin; estrategiak ezartzea, pertsona bakoitzari lagunduko diotenak bere intereseko testuak hautatzen, haien jabe egiten eta bere irakurketa-esperientzia pertsonala partekatze; askotariko testuinguruak ezartzea, irakurtzeko arrazoiak sorraraziko dituztenak, obrei buruz ikertzeko erronkak abiapuntutzat izango dituztenak eta irakurleak testuekin afektiboki lotzeko moduak proposatuko dituztenak, eta loturak ezartzea irakurritako obraren eta beste adierazpen kultural eta gertakari historiko batzuen artean.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK2, HKK4, KD3, KPSII1, KPSII3, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.

2.1.10.– Atzerriko hizkuntza batean ahozko testuak, idatzizko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta ekoiztea, erabilera komuneko genero diskurtsiboetakoak, gero eta autonomia handiagoarekin; horretarako, oinarritzko ulermen-, ekoizpen-, interakzio- eta bitartekaritza-estrategiak erabili behar dira, modu sortzaile, eraginkor eta arduratsuan erantzuteko norberaren premiei eta komunikazio-helburu zehatzei.

Atzerriko hizkuntza batean komunikatzeak eskatzen du ondo garatuta edukitzea ulermena, ekoizpena eta interakzioa (ahozkoa, idatzizkoa edo multimodala), eta ideiak argi adieraztea, hizkuntza estandarra erabiliz. Eguneroko gaiak landuko dira, garrantzi pertsonala dutenak edo interes publikokoak, ikasleen esperientziatik asko urruntzen ez direnak.

Maila honetan, ulermena garatua izateak esan nahi du testuak ulertzea eta interpretatzea eta jakitea nola nabarmendu haien esanahi orokorra eta xehetasun garrantzitsuenak, ikasleen komunikazio-premiei erantzuteko. Horretarako, estrategia egokienak aktibatu behar dira testuaren esanahia eta zentzua berreraikitzeke eta testu horien komunikazio-asmoari buruzko hipotesiak egiteko. Ikasleentzat, ulermen-estrategia erabilgarrienetakoa da esanahiak beste komunikazio-testuinguru batzuetara eramatea eta estrapolatzea, eta beren errepertorio linguistikoa osatzen duten hizkuntzetako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak transferitzea eta integratzea. Formatu multimodalean, ulermenaren arloan sartzen da interpretatzea errepresentazio-modu desberdinak (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinuak, keinuak, etab.), baita testuinguruko informazioa interpretatzea ere (hizkuntzaren berezko elementuak eta hizkuntzaz kanpoko elementuak).

Ekoizpenean, sartzen dira: ahozko adierazpena, idatzizko adierazpena eta adierazpen multimodala. Etapa honetan, ekoizpen-prozesuan eguneroko gaiak buruzko testuak idatzi eta azaldu behar dira, norberarentzat garrantzia dutenak edo ikaslearen esperientziatik hurbil dagoen interes publikoa dutenak. Ekoizpenak berekin dakar, halaber, Internet dokumentazio-iturri gisa erabiltzea informazio-bilaketa aurreratuak egiteko. Formatu multimodalean, ekoizpenean sartzen da esanahia sortzeko zenbait baliabide erabiltzea (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinuak, keinuak, etab.) eta aukeratzea zen den baliabiderik egokiena kasuan kasuko zereginaren eta ikaslearen beharren arabera, eta hura aplikatzea.

Interakzioan, beste hauek ere hartu behar dira kontuan: kortesia linguistikoa eta etiketa digitala, komunikazioaren hitzezko eta ez-hitzezko elementuak, eta elkarrizketa-erregistro eta -genero desberdinetara egokitzea (ahozkoak, idatzizkoak eta multimodalak), ingurune sinkrono edo asinkronoetan, hala nola plataforma birtualetan. Bitartekaritza dagokionez, ikasleek gizarte-eragile gisa jardungo dute zubiak eraikitzeke eta laguntzeko mezuak elkarrizketaren bidez eraikitzen edo adierazten.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII3, KPSII5, HK3, EK1, EK3, KAKK2, KAKK3.

2.1.11.– Trebetasun pertsonal eta sozialak garatzea, eta emozioak identifikatu eta kudeatzea, banaka nahiz taldean lan egiteko rola esleituak dituzten hainbat aldetan; zehazki, autoebaluazioak eta baterako ebaluazioak egingo dituzte, berdinen arteko hazkuntza, inklusioa, genero-estereotipoen desagertzea eta ekintzailatza –pertsonala eta lanekoa– sustatzeko.

Ikaskuntza sozial eta emozionala ezartzea funtsezkoa da banaka ikasteko eta taldean lan egiteko; izan ere, ikasleei laguntzen die beren gaitasunak eta gainerakoenak ezagutzen, beren emozioak kudeatzen eta berdintasunetik pertsona guztiak errespetatzen. Horri esker, ikaskuntza-giro parte-hartzaile eta ekitatiboa sortzen da, ikasleen askotariko beharrei erantzuten diena, eta praktikak gauzatzen dituzte, aktiboki inplikatzeko dituztenak beren hazkuntza sozial, emozional eta akademikoan. Horrek ekarriko du ikasleen ongizatea eta errendimendu akademikoa hobetzea, trebetasunak eskuratuko dituztelako beren bizitza osoan modu autonomoan ikasteko eta ingurunean integratzeko.

Prozesu honetan, ikasleek emozioak ulertu eta kudeatzeko, xede positiboak ezarri eta lortzeko, besteenganako enpatia sentitu eta adierazteko, harreman positiboak izateko eta erabaki arduratsuak hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratu eta aplikatuko dituzte.

Konpetentzia espezifiko horrek lotura dauka irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1, HKK5, KE2, KE3, KD3, KPSII1, KPSII2, KPSII3, KPSII4, HK4, KAKK3.

## 2.2.– Ebaluazio-irizpideak.

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| 1.1.– Identifikatu, interpretatu eta aztertzea zein diren sistema demokratikoaren, bertako instituzioen eta barne hartzen dituen erakunde sozial, politiko eta ekonomikoen oinarritzko printzipioak, eta azaltzea nola funtzionatzen duten bizikidetza eta komunitateko bizitza arautzen dituzten mekanismo gisa.                                                        |
| 1.2.– Aitortzea eta azaltzea zer mekanismok arautu dituzten bizikidetza eta komunitateko bizitza historian zehar, gizartearen jatorritik jarraian etorri diren zibilizazio guztietara, eta azpimarratzea zein diren sortu diren antolakuntza sozial eta politikoko eredu nagusiak.                                                                                       |
| 1.3.– Diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzea gertuko ingurune harreman pertsonal eta sozialetan, epaituz norberaren portaerak eta gainerakoenak, eta ondorioztatzea zein diren jarrera sistema demokratikotik eratorritako eskubide eta betebeharrak egokitzeko jarraibide eta ekintza egokiak.                                                                  |
| <b>2. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| 2.1.– Garapen ekonomikoaren ideien eta haren gizarte-, lurralde- eta ingurumen-ondorioen esanahi historikoari buruzko ezagutza aplikatzea nazioarteko mailan, estatu-mailan eta tokiko mailan; ulertzea hazkunde- eta atzerapen-erritmoak eta -zikloak daudela; eta kontuan izatea indartu behar direla planetaren jasangarritasuna bermatuko duten jarrera ekosozialak. |
| 2.2.– Aztertzea eta azaltzea zein diren sistema ekonomiko desberdinak eta Aro Garaikidean izan dituzten garapen-prozesuak, eta elkarren artean alderatzea, identifikatuta zein diren elkarren arteko erlazioak eta nazioartean sorrarazi dituzten –eta sorrazten dituzten– gatazkak.                                                                                     |
| 2.3.– Sistema ekonomiko desberdinak baloratzea, eta alderatzea eskubide sozialen eta oinarritzko baliabideetarako sarbide unibertsalaren garrantziarekin.                                                                                                                                                                                                                |
| <b>3. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| 3.1.– Aro Garaikidean garatu diren prozesu kultural eta politikoak elkarren artean erlazionatzea, eta aztertzea zein diren gaur egun arte sortu diren identitate kolektibo guztiak, norberaren identitatea eta gainerakoena osatu duten ezaugarriak aitortuz eta errespetatuz.                                                                                           |
| 3.2.– Identifikatzea eta azaltzea zer ekarpen egin dituen Aro Garaikideak, eta munduko herritar guztien ondare gisa aitortzea eta baloratzea sortu den legatu historiko, kultural, instituzional, artistiko eta kulturala, aintzat hartuz tokiko, autonomia-mailako, nazio-mailako eta Europa mailako eta maila unibertsaleko identitate-oinarri gisa.                   |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>4. kompetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 4.1.– Ezagutzea zein den gaur egungo estatu eta hegemonien osaera eta garapena, Espainiar Estatuarena eta Euskal Autonomia Erkidegoarena barne, eta espazioan eta denboran kokatzea, kontuan hartuz zer elementu historiko, kultural, instituzional eta erlijiosok ekarri duen haiek sortzea.                                                                                                                                                                                                  |
| 4.2.– Diskriminaziorik gabeko jarrera izatea eta aniztasun sozial eta multikulturala aitortzea, balioa emanez inklusioari, gutxiengo etniko-kulturalen aintzatespenari eta lankidetzari, gizarte-kohesioa ahalbidetzen duten balio gisa.                                                                                                                                                                                                                                                       |
| 4.3.– Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren aldeko argudioak ematea, eta nabarmentzea eta baloratzea zer ekarpen egin dituzten Aro Garaikideko emakumezko pertsonaia garrantzitsuek hainbat esparrutan, edozein egoeratan aurre eginez generoagatiko diskriminaziozko jarrerari eta portaerari.                                                                                                                                                                                |
| <b>5. kompetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 5.1.– Hainbat iturritan eskuratutako informazioa—oraingo eta iraganeko gertakari historiko, geografiko eta sozial garrantzitsuei buruzkoa— bilatzea, hautatzea, antolatzea eta komunikatzea, eta zenbait euskarritan aurkeztea, zereginaren helburuak kontuan hartuta.                                                                                                                                                                                                                         |
| 5.2.– Iturri desberdinetatik aterata, nor bere eduki propioak sortzea gero eta laguntza gutxiagorekin, eta informazio egokiena bilatzea eta hautatzea, betiere ikuspegi kritikoarekin, jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz eta kontsultatutako iturriak aipatuz.                                                                                                                                                                                                                 |
| 5.3.– Informazioa bilatzeko eta hautatzeko estrategia analogiko eta digitalak aplikatzea, eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| <b>6. kompetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 6.1.– Aitortzea eta baloratzea zein diren EAEko hizkuntza koofizialak, haien aldaerak eta Espainiako beste hizkuntza batzuk, haien jatorria eta garapen historiko eta soziolinguistikoa azalduta; horrez gain, hizkuntza desberdinen artean, zenbait alderdi kontrastatzea, baita euskararen eta gaztelaniaren dialektoen ezaugarriak ere, alde batera utzita aurreiritzi eta estereotipo linguistikoak eta aberastasun kultural, linguistiko eta dialektala errespetatu eta baloratuz.        |
| 6.2.– Identifikatzea zein diren EAEren errealitate linguistikoaren ezaugarriak, oinarritzat hartuta funtsezko ezagutza soziolinguistikoak, eta euskararekiko ohitura eta jokabide linguistiko asertibo eta enpatikoak izatea, jarrera proaktibo eta afektiboa erakutsiz eskolako eta bizitza sozialeko askotariko esparruetan hura modu analogiko eta digitalean erabiltzeko, baita euskararen normalizaziorako eta euskal kultura transmititzeko ere eta sortzeko gauzatzen diren ekimenetan. |
| 6.3.– Jakitea nola funtzionatzen eta erabiltzen diren hizkuntzak, eta hausnarketa interlinguistikoa gero eta modu autonomoagoan erabiltzea hizkuntzak ikasteko eta komunikazio-kompetentzia garatzeko, hizkuntzen ezaugarrietako batzuk alderatuz.                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>7. kompetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 7.1.– Ulertzea eta interpretatzea zein den testuaren esanahi orokorra, egitura eta informazio garrantzitsuen hainbat esparrutako ahozko testuetan, idatzizko testuetan eta testu intermodaletan, komunikazio-premiaren eta igorlearen asmoaren arabera, eta horretarako ulermen-arazoak konpontzeko estrategia egokiak erabiltzea.                                                                                                                                                             |
| 7.2.– Baloratzea zein den testuen forma eta edukia, berdin delarik testuok esparru akademikokoak, publikokoak edo sozialekoak diren edota esparru pertsonalekoak edo etxeakoak diren, eta ebaluatzea nolako den haien kalitatea eta fidagarritasuna, eta egokiak diren helburu jakin batzuei erantzuteko.                                                                                                                                                                                      |
| <b>8. kompetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 8.1.– Interes pertsonal, sozial, hezigarri eta profesionaleko gaiet buruzko ahozko aurkezpenak diseinatzea eta egitea, plangintza-maila desberdinetakoak, eta genero diskurtsiboen berezko konbentzioetara egokituta, arintasunez, modu koherentean eta euskarriaren arabera erregistro egokia erabiliz, baita hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak modu eraginkorrean erabiliz ere.                                                                                                           |
| 8.2.– Idatzizko testuen eta testu multimodalen idazketa planifikatzea, kontuan hartuta zein den kasuan kasuko komunikazio-egoera, hartzailea, xedea eta kanala; zirriborroak idaztea eta berrikustea, eta azken testua aurkeztea: testu koherentea, kohesionatua eta erregistro egokikoa, lexikoari dagokionez zehatza eta ortografia eta gramatikari dagokienez zuzena; diskriminaziozko erabilerarik gabe edo erabilerari sexistatik egin gabe, baita ingurune digitalean ere.               |
| 8.3.– Aktiboki eta modu egokian parte hartzea ahozko eta idatzizko interakzio informaletan, taldeko lanetan eta egoera formaletan, zeinetan eskatzen baita elkarreraginean aritzea; halakoetan, jarrera aktiboa eta errespetuzkoa izatea, eta kooperazio eta kortesia linguistikoa erabiltzea, ingurune digitalean ere hizkuntzaren diskriminaziozko erabilerak eta erabilerari sexistak saihestuz.                                                                                            |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>9. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| 9.1.– Norberaren gustuen, interesen eta beharren arabera hautatutako testuak modu autonomoan irakurtzea, eta irakurketa-esperientzia azaltzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| 9.2.– Irakurketa-esperientzia hainbat euskarritan partekatzea, eta ezagutzaren, gozamenaren eta garapen pertsonalaren iturri gisa baloratzea, eta obraren zentzua erlazionatzea norberaren esperientzia pertsonalarekin, irakurketa-esperientziarekin eta esperientzia soziokulturalarekin.                                                                                                                                                     |
| <b>10. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 10.1.– Nabarmentzea zein diren luzera ertaineko ahozko testuen, idatzizko testuen eta testu multimodalen esanahi orokorra eta ideia nagusiak, eta testu horietako informazio egokia hautatzea; ideia horiek argi eta hizkuntza estandarrean adieraztea askotariko euskarrietan, berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin, ulermen-estrategia egokiak aplikatuz, esanahiak ondorioztatuz eta ez-hitzezko elementuak interpretatuz. |
| 10.2.– Ahoz eta behar adinako egokitasunarekin, arintasunarekin, ahoskerarekin eta intonazioarekin adieraztea testu errazak, egituratuak, ulerterrazak, koherenteak eta komunikazio-egoerara egokituak, helburu honekin: euskarri desberdinetan deskribatzea, kontatzea, argudiatzea eta informatzea, hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak erabiltzea eta hizkuntzaren erabilera eraginkor eta etikoa eginda.                                   |
| 10.3.– Luzera ertaineko testuak antolatzea, idaztea eta zabaltzea; testuok ezaugarri hauek izango dituzte: argiak eta koherenteak izatea, kohesioa izatea, zuzenak izatea, sormena izatea eta proposatutako komunikazio-egoerarako, testuaren tipologiarako eta erabilitako tresna analogiko eta digitaletarako egokia izatea.                                                                                                                  |
| 10.4.– Elkarri eragiteko eta bitartekaritzarako estrategiak aplikatzea, komunikazioa ahalbidetzen dutenak eta komunikazio-asmorako egokiak direnak.                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>11. konpetentzia espezifikoa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| 11.1.– Norberaren erantzun emozionalak identifikatzea eta modulatzeko, eta sentimenduak adieraztea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| 11.2.– Gainerakoen emozioak ezagutzeko eta ulertzeko, haien ekintzak, jarrerak eta pentsamenduak hobeto ulertzeko eta haiekin elkarreaginean ondo aritzeko.                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| 11.3.– Banaka eta taldean lan egitea, eta prozesu horretan emozioak kudeatzea eta pertsonen aniztasuna eta iritziak errespetatzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| 11.4.– Norberaren eta gainerako taldekideen ekarpenen azterketa kritikoa egitea, autoebaluaziorako eta baterako ebaluaziorako tresnak erabiltzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                               |

### 2.3.– Oinarrizko jakintzak.

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Oinarrizko jakintzak. Komunikazioaren eta gizarte-zientzien esparrua.                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>A) Informazio-alfabetatzea.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| Informazioa fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideei jarraituz bilatzeko eta hautatzeko estrategiak; informazioa aztertzea, baloratzea, berrantolatzea eta norberak sortutako eskemetan laburbiltzea, eta ezagutza bihurtzea; sormenezko komunikazioa eta hedapena, jabetza intelektuala errespetatzen duena.                         |
| Gai geografiko, historiko eta sozialei buruzko informazioa bilatzea eta lantzea, esparru digital eta analogikoetan. Informazioaren irakurketa eta balorazio kritikoa egitea, iturrien fidagarritasuna egiaztatzea eta sareetako desinformazioaren arazoa ezagutzeko. Zenbait produktu sortzea formatu desberdinetan, ezagutza sortzeko modu gisa. |
| Eskola-proiektuetarako plataforma birtualak modu seguru eta sortzailean erabiltzeko jarraibideak, haien diskriminaziozko erabilera eta erabilera sexista identifikatuz.                                                                                                                                                                           |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>B) Egungo munduko erronkak.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| Esparru historiko, artistiko eta geografikoarekin lotutako lexikoaren erabilera espezifikoak.                                                                                                                                                                                                                                     |
| Geografia ikasteko teknikak eta metodoak: testuak aztertzea, eta mapak, eskemak, laburpenak, grafikoak eta irudiak interpretatu eta egitea, edozein euskarritan.                                                                                                                                                                  |
| Egungo munduaren antolamendu politikoa: estatu-formak eta gobernu-motak. Zuzenbide-estatua eta balio konstituzionalak. Demokrazia: printzipioak, prozedurak eta instituzioak.                                                                                                                                                     |
| Gaur egungo gatazka nagusiak. Nazioarteko aliantzak eta instituzioak (NBE, NATO, ELGA, EB, AEE, APEC, etab.), bitartekaritza eta bake-misioak. Esku-hartze humanitarioak eta justizia unibertsala. Genozidioak eta gizateriaren aurkako krimenak. Gerrak, terrorismoa eta indarkeria politikoaren beste forma batzuk.             |
| Egungo munduko egitura ekonomikoak: ekonomia globalizatua. Eragile ekonomikoak, produkzio-sektoreetako aldaketak eta merkatuen funtzionamendua. Arlo publikoa eta pribatua. Baliabideak, desberdinkeria eta injustizia tokiko eta mundu-mailako testuinguruan. Migrazioak, aniztasun kulturala eta mestizajea egungo gizarteetan. |
| Emakumeak egungo gizarteetan: hezkuntza, laneratzea eta boterea, emakumeenganako diskriminazio- edo indarkeria-mota guztien aurrean. Mugimendu feminista. Inguruneke jarrera eta jokabide sexistak identifikatzea: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.                                                                        |
| <b>C) Gizarteak eta lurraldeak.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| Historia-azalpenen kausalitate-aniztasuna. Prozesu historikoetan parte hartzen duten osagai ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen identifikazioa.                                                                                                                                                                            |
| Denbora historikoa: denbora-lerroak eraikitzea eta interpretatzea prozesu historikoak ulertzeko linealtasunaren, kronologiaren, aldiberekotasunaren eta iraupenaren ikuspegitik.                                                                                                                                                  |
| Transformazio politikoa Aro Garaikidean: mendekoak izatetik herritar izatera. Legea kontratu sozial gisa: banakako eskubideen eta eskubide kolektiboen konkista. Iraultza liberalak. Munduko sistema liberalen jatorria, bilakaera eta egokitzapena. Ideologia politiko nazionalista berriak. Demokraziaren osaera.               |
| Sistema kapitalista jatorritik gaur egunera. Ekonomia industria-iraultzetatik hona: kolonialismoa, inperialismoa eta mendekotasun ekonomiko eta kultural berriak. 1917ko Errusiako Iraultza eta haren ondorioak.                                                                                                                  |
| Industrializazioa Euskal Herrian, eraldaketa ekonomiko eta sozialak eta nazionalismoaren sorrera.                                                                                                                                                                                                                                 |
| Demokraziaren krisiak eta totalitarismoen jatorriak: faxismoak eta estalinismoak. Askatasunaren, berdintasunaren eta giza eskubideen aldeko mugimendu sozialak mundu garaikidean. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.                                                                                                         |
| Nazioarteko harremanak Aro Garaikidean: Lehen Mundu Gerra, gerren arteko aldia, 1929ko krisialdia, eta Bigarren Mundu Gerra, haren kausak eta ondorioak.                                                                                                                                                                          |
| Espainiako Bigarren Errepublika: erreformak, haien ondorioak eta gizartearen polarizazioa. Autonomia-mailako ordenamendu arautzailearen sorrera: 1936ko Euskal Autonomia Estatutua. 1936ko Espainiako Gerra Zibila eta Francoren diktadura, EAEko ondorioak.                                                                      |
| Espainiako konstituzioen bilakaera: 1812ko Konstituziotik 1978ko Konstituziora.                                                                                                                                                                                                                                                   |
| XX. mendearen bigarren erditik gaur egunera arteko oinarri geoestrategikoak: blokeen politika eta Gerra Hotza. Ameriketako Estatu Batuen hegemoniatik mundu multipolar batera. Nazioarteko erakundeen zeregina: NBEren sorrera eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.                                                        |
| Europaren eraikuntza-prozesua. Integrazio ekonomikoa, monetarioa eta herritarrena. Europako instituzioak.                                                                                                                                                                                                                         |
| EAEko antolamenduaren eta administrazioaren oinarritzko elementuak, Espainiar Estatuaren testuinguruan: autogobernuaren iturriak eta 1979ko Autonomia Estatutua.                                                                                                                                                                  |
| Emakumeek eskubide zibil eta politikoak konkistatzea; eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren aldeko borroka. Historia garaikideko emakume esanguratsuak.                                                                                                                                                       |
| Aro Garaikideko adierazpen artistiko eta kultural berriak mundu-mailan, Espainian eta Euskal Herrian. Neoklasizismotik XXI. mendeko joera artistikoetara. Ondare materialaren eta immaterialaren errespetua eta kontserbazioa.                                                                                                    |
| Aldaketa kulturalak eta mugimendu sozialak mundu garaikidean. Eskubideen konkista gizarte demokratiko garaikideetan.                                                                                                                                                                                                              |
| Aniztasun soziala, kulturala eta generoari dagokiona. Tolerantzia, integrazioa eta kohesio soziala. Migrazioak eta kulturantzatasuna. Diskriminazioa.                                                                                                                                                                             |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>D) Hizkuntzak eta hiztunak.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| Hizkuntzei eta hiztunei buruzko kontzeptu soziolinguistikoak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| Euskararen historia: jatorria eta teoria nagusiak; lehen lekukotzak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| Espainiako hizkuntzen garapen soziohistorikoa.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| Euskararen erabilerarekiko interesa, ekimena eta jarrera proaktiboa bizitza pertsonaleko, eskolako eta bizitza sozialeko hainbat esparrutan.                                                                                                                                                                                                                                                |
| Atzerriko hizkuntza pertsonen arteko eta nazioarteko komunikazio-bitarteko gisa, informazio-iturri gisa eta parte-hartze sozialerako eta norbera aberasteko tresna gisa.                                                                                                                                                                                                                    |
| Europako hizkuntzen egoera. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| Hausnarketa interlinguistikoa egiteko estrategiak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <b>E) Komunikazioa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| Ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko estrategiak. Testuaren esanahi orokorra. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, eta zatien arteko erlazioa; informazio garrantzitsua hautatzea eta barneratzea. Informazioa berreskuratzea eta ondorioztatzea. Igorlearen asmoa. Testuen lexikoa. Ahozko testuen, idatzizko testuen eta testu multimodalen formari eta edukiari buruzko hausnarketa. |
| Testuetako hitzeko eta ez-hitzezk hizkuntzaren eta hizkuntza ikonikoaren diskriminaziozko erabilerak detektatzeko estrategiak.                                                                                                                                                                                                                                                              |
| Esparru pertsonal, akademiko, sozial eta profesionaleko idatzizko testuen, ahozko testuen eta testu multimodalen genero diskurtsiboen ezaugarriak ezagutzeko jarraibideak.                                                                                                                                                                                                                  |
| Ahozko testuen, idatzizko testuen eta testu multimodalen ulermena testuak entzuteko edo irakurtzeko helburura egokitzeko jarraibideak.                                                                                                                                                                                                                                                      |
| Ahozko ekoizpen formalerako estrategiak, zerikusia dutenak plangintzarekin eta informazioa bilatzearekin, testua egitearekin eta berrikustearekin. Entzuleriaren eta azalpenaren iraupenaren arabera egokitzapena. Ez-hitzezko elementuak. Ahozkotasun formalaren ezaugarri diskurtsibo eta linguistikoak. Argudiatutako ahozko deliberazioa.                                               |
| Idatzizko ekoizpenerako estrategiak, zerikusia dutenak plangintzarekin, idazketarekin, berrikuspenarekin, edizioarekin eta euskarri desberdinetako hedapenarekin. Ahozko testuen, idatzizko testuen eta testu multimodalen askotariko genero diskurtsiboezko bidezko dituzten testu-formatu eta -egituren erabilera.                                                                        |
| Koherentzia-, kohesio- eta egokitze-elementuak identifikatzeko eta erabiltzeko estrategiak, ahozko testuak, idatzizko testuak eta testu multimodalak ulertu eta ekoiztean.                                                                                                                                                                                                                  |
| Genero diskurtsiboezko bidezko dituzten baliabide linguistikoaren identifikazioa eta erabilera: elementu sintaktikoak, lexiko espezifikoak, ahozko formak eta puntuazio-markak.                                                                                                                                                                                                             |
| Pentsamendua antolatzeak idazketaren erabilerak: idazketa automatikoa, oharak, eskemak, kontzeptu-mapak eta mapa mentalak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, etab.                                                                                                                                                                                                           |
| Ahozko eta idatzizko interakzio informala eta formala. Elkarriketa-kooperazioa eta kortesia linguistikoa. Entzute aktiboa, asertibitatea eta elkarriketaren bidezko gatazken ebazpena.                                                                                                                                                                                                      |
| Sistema linguistikoari buruz hausnartzeko eta komunikazio-unitateak behatzeko, alderatzeko eta sailkatzeko estrategiak.                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| <b>F) Irakurtzeko ohitura eta hezkuntza literarioa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| Modu autonomoan inplikatzeko irakurketan, eta irakurritako testuei eta irakurketari berari buruz hausnartzeko estrategiak erabiltzea.                                                                                                                                                                                                                                                       |
| Obra eta testuen interpretazioaren eraikuntza partekatua egiteko estrategia kognitibo eta emozionalak; obra horiek izan daitezke egungo forma literarioak, liburu zientifikoak, saiakerak, monografiak, etab. (inprimatuak edo digitalak).                                                                                                                                                  |
| Euskal literaturako, espainiar literaturako, literatura unibertsaleko eta gaur egungo literaturako obrak eta testu-zati esanguratsuak irakurtzea, gaikako edo generokako mugimendu edo ibilbideetan sartuta daudenak (emakumezko eta gizonezko idazleak hartu behar dira).                                                                                                                  |
| Oinarrizko informazio soziohistoriko, kultural eta artistikoa erabiltzeko estrategiak, genero-ikuspegia aintzat hartzen dutenak, askotariko esparruetako obrak eta testuak interpretatzeko.                                                                                                                                                                                                 |
| Irakurritako testuekin izandako irakurketa-esperientzia eta jabetze eta birsorkuntza kritiko edo sortzailerako modu desberdinak adierazteko tresnak.                                                                                                                                                                                                                                        |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>G) Atzerriko hizkuntzan komunikatzea, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| Autokonfiantza. Akatsa, hobetzeko tresna gisa eta konpontzeko proposamen gisa.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| Ahozko testuen, idatzizko testuen eta testu multimodalaren ulermena, ekoizpena eta baterako ekoizpena planifikatzeko, gauzatzeko, kontrolatzeko eta konpontzeko oinarrizko estrategiak.                                                                                                                                                                                                                            |
| Komunikazio-esparru eta -testuingurura egokitutako oinarrizko komunikazio-funtzioak: agurtzea eta norbere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; ekitaldiak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; informazioa eskatzea eta trukatzea; argibideak eta aginduak ematea; laguntza, proposamenak eta iradokizunak eskaintzea, onartzea eta ukatzea; etab.     |
| Ahozko testu, idatzizko testu eta testu multimodal labur eta errazak ulertzeko, ekoizteko eta batera ekoizteko beharrezkoak diren oinarrizko testuinguru-ereduak eta genero diskurtsiboak: testuinguruaren ezaugarriak eta testuinguru bera ezagutzea (parte-hartzaileak eta egoera); testuinguruak sortutako espektatibak; generoaren, testuaren funtzioaren eta egituraren arabera antolamendua eta egituraketa. |
| Oinarrizko unitate linguistikoak eta unitate horiei lotutako esanahiak, hala nola entitatearen adierazpena eta haren propietateak, kantitatea eta kalitatea, espazioa eta harreman espazialak, denbora eta denboran zehar gertatzen diren erlazioak, baieztapena, ezeztapena, galderak eta harridurak, oinarrizko erlazio logikoak.                                                                                |
| Esparru pertsonalean eta profesionalean ohikoak diren lexikoa, esaldiak eta esaerak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| Oinarrizko soinu-, doinu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroiei lotutako komunikazio-esanahi eta -asmo nagusiak.                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| Oinarrizko konbentzio ortografikoak eta formatuei, patroiei eta elementu grafikoei lotutako komunikazio-esanahi eta -asmoak.                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| Oinarrizko tresna analogiko eta digitalak, ahazko testuak, idatzizko testuak eta testu multimodalak ulertzeko, ekoizteko eta batera ekoizteko; eta hezkuntza-interakzio eta -lankidetzarako plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, tresna digital kolaboratiboak...), atzerriko hizkuntzetako hiztun edo ikasleekin batera ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko.                |
| Hizkuntzen arteko oinarrizko konparazioa, atzerriko hizkuntzako eta beste hizkuntza batzuetako elementuak oinarri hartuta: jatorria eta ahaidetasunak.                                                                                                                                                                                                                                                             |
| Eguneroko egoeretan bitartekaritza-jarduerak gauzatzeko aukera ematen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Aniztasun linguistiko eta kulturala ulertzeko eta baloratzeko oinarrizko estrategiak, balio ekosozial eta demokratikoak aintzat hartuta.                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>H) Lanaren antolamendua eta ikaskuntzari buruzko hausnarketa.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| Aurrez aurreko testuinguruetan eta testuinguru digitaletan banakako nahiz taldeko lana antolatzeko estrategiak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| Autokonfiantza, ekimena eta ikaskuntzari buruzko hausnarketa. Akatsa, prozesuaren zati eta hobetzeko aukera gisa.                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta taldeko lanean esleitutako banakako arduren onarpena.                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| Autoebaluazioa, autorregulazioa eta baterako ebaluazioa egiteko erabilera komunezko estrategia eta tresna analogiko eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak.                                                                                                                                                                                                                                                   |

## II. ERANSKINA

## CURRICULUM ANITZEKO PROGRAMA BATEAN SARTZEKO EGOKITASUN-TXOSTENA

## 1.– Ikaslearen identifikazioa.

|                      |  |                                          |  |
|----------------------|--|------------------------------------------|--|
| Abizenak:            |  | Izena:                                   |  |
| Jaioteguna:          |  | Eskola-identifikaziorako zenbakia (EIZ): |  |
| Ikastetxea eta kodea |  |                                          |  |
| Maila eta taldea:    |  |                                          |  |

## 2.– Irakasleek programan sartzeko egindako proposamena.

..... jaunak/andreak, ..... taldearen tutore gisa, curriculum anitzeko programa batean sartzeko proposamena egiten du, bat etorritik 20.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n egindako azken ebaluaziorako bilkuran hartutako erabakiarekin.

## 3.– Curriculumeko konpetentzien eskuratze-maila.

| Oinarrizko konpetentziak                                                               | Konpetentzien eskuratze-maila<br>(jarri «x» dagokion lekuan) |             |                 |              |
|----------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------|-------------|-----------------|--------------|
|                                                                                        | 1<br>Oinarrizkoa                                             | 2<br>Egokia | 3<br>Aurreratua | 4<br>Bikaina |
| Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia                                                 |                                                              |             |                 |              |
| Konpetentzia eleaniztuna                                                               |                                                              |             |                 |              |
| Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniarietarako konpetentzia |                                                              |             |                 |              |
| Konpetentzia digitala                                                                  |                                                              |             |                 |              |
| Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa                                 |                                                              |             |                 |              |
| Herritartasunerako konpetentzia                                                        |                                                              |             |                 |              |
| Ekintzailetzarako konpetentzia                                                         |                                                              |             |                 |              |
| Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako konpetentzia                                 |                                                              |             |                 |              |

**4.– Oharrak.**

Atal honetan adieraziko da ikaslearen zer alderdi diren aipagarriak; adibidez: ahalegina eta lana, eskoletarako bertaratzea, ikasteko ohiturak, irakurketa-ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, taldean duen integrazio-maila, jarrera eta jokabideak, ikasteko zailtasunak, etab.

|  |
|--|
|  |
|--|

**5.– Zer neurri eta laguntza jaso dituen eskolatuta egon bitartean (X batekin markatu):**

|                           | Lehen<br>Hezkuntza | 1.<br>DBH | 2.<br>DBH | 3.<br>DBH | 4.<br>DBH |
|---------------------------|--------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| HBSP                      |                    |           |           |           |           |
| Bidelaguna                |                    |           |           |           |           |
| PTko laguntza espezifiko  |                    |           |           |           |           |
| EHIko laguntza espezifiko |                    |           |           |           |           |
| Maila errepikatzea        |                    |           |           |           |           |
| Beste batzuk (zehaztu)    |                    |           |           |           |           |

.....(e)n, 20.....(e)ko.....aren .....(e)(a)n

O.E.

Ikasketaburua

Orientatzailea

Izpta.: .....

Izpta.: .....

(eskuz edo elektronikoki sinatua)

(eskuz edo elektronikoki sinatua)

## III. ERANSKINA

## GURASOEN EDO LEGEZKO ARDURADUNEN ADOSTASUN-ADIERAZPENA

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak,  
\_\_\_\_\_ ikaslearen

☐ gurasoa, ☐ legezko tutorea (markatu dagokiona) naizen aldetik,

eta ikusita ikaslearen tutoreak proposamena egin duela curriculum anitzeko programa\* batean sar dadin, adierazten dut ikastetxeko orientatzaileak haren eskola-egoeraren berri eman digula eta programara sartzea komeni zaiola jakinarazi digula. Horri dagokionez, hau da gure iritzia:

☐ Alde.

☐ Kontra.

Era berean, hezkuntza-administrazioko profesionalei baimena ematen diegu koordinatzeko, nire alabari edo semeari buruzko informazioa trukatzeko eta beste instantzia profesional batzuekin (osasun-eta gizarte-arlokoak) jarduketak egiteko, betiere Europako Parlamentuaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Hezkuntzaren eremuan datuak babesteari buruzko Erregelamendu Orokorrak (2021) araututako konfidentzialtasuna mantenduz.

\_\_\_\_\_(e)n, 20\_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)(a)n.

Gurasoa edo legezko tutorea.

Ikaslea.

Izpta.:

Izpta:

\* Curriculum anitzeko programen iraupena, oro har, bi ikasturtekoa izango da.

## IV. ERANSKINA

## IKASLEA PROGRAMAREN BIGARREN MAILAN SARTZEKO SALBUESPENEZKO PROPOSAMENA

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak,  
\_\_\_\_\_ ikastetxeko zuzendari gisa,  
eskatzen du \_\_\_\_\_  
ikaslea sar dadila, salbuespen gisa, ikastetxeak 25-26ko ikasturterako antolatu duen curriculum  
anitzeko programaren bigarren mailan.

Horretarako, ziurtatzen du ikaslea egoera honetan dagoela (markatu dagokiona):

☐ Laugarren maila amaitu du eta ez dago Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko moduan, eta irakasle-taldeak uste du neurri horrek titulua eskuratzeko lagunduko diola, betiere Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuan zehaztutako iraupen-mugak gainditu gabe.

☐ Berandu sartu da euskal hezkuntza-sisteman, eta, agindu honetako 10. artikuluan jasotako programan sartzeko baldintzak betetzen ez baditu ere, irakasle-taldeak uste du neurri horrek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko lagunduko diola.

\_\_\_\_\_(e)n, 20\_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendaria.

Izpta.: